

historia
josetxiki gudaria

musika
rafa rueda

QEU

2,40 €

2008ko azaroa

189

durango 08
aritz zabala

euskara
ziurtagiriaren elkartea
euskal kantu txapelketa



ohean

gasteiz. abenduak 3



CEGASA

Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK



Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.

Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna CEGASA EVOLUTION da, goragoko potentzia ga-ratzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.



geupertsonaia

ohean: matxalen de pedro aktorea & taldea . . .7-10

geugaia

'la mancha nos dio un gudari, mis memorias' .13-16

batbitan

blanca garcia *idazle* gaztea18-19

artetxokoa

durango 08 kartela: aritz zabala22-23

artetxokoa

rafa rueda: 'zuhaitz okerretan gora noa' . . .24-25

bathirutan

ziurtagiriaren elkarte: rober gutierrez27-29

bathirutan

euskal kantu txapelketa 08:31-33

lutxianotarrak & deiane abajos

historia&euskara

martin bañezen eresia34-35

beste:

gaztezulo20

literatura dosi txikitan30

geusex37


agenda, kaletik, euskaltasunean, proposamenak,
araba bixotzian, historia zutabea, errezeta eta umorea



GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartaren ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariko taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariko batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune veleaz de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak: josune veleaz de mendizabal, edurne begiristain, ainhoa arriaga, naraia cuesta eta ane pedruzo | azaleko argazkia: maskarada | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea & araba bixotzian: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: gorka etxabe otadui, kike fdz de pinedo, jon arretxe, mikel ayerbe, erlantz urtasun, maider garcia de bikuña (emaize sexologia zentroa), andoni rodriguez (diocesanas-mendizorrotzako ostalaritza eskola) eta gaztezulo. | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | etiketak eta publizitate fk.: edurne begiristain, ebz | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Franko Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



zeregin euskaraz [azaroa]



GEU ELKARTEA

GEUREKIN MENDIRA

azaroak 16 igandea
LARRUNARRI/TXINDOKI (1346m)
ARALAR mendikatea
ARRATSALDE ERDIRA ARTE
lovaina plazatik / kotxez
ordua: 9:00
arduraduna: bego (945266812)
geurekinmendira@gmail.com



KULTUR ERROTA

azaroak 4 asteartea
KONTZETUA: RAFA RUEDA
'ZUHAITZ OKERRETAN GORA NOA'
disco berriarekin
20:30 parral tabernan

IRAKURLE KLUBA

azaroak 27, osteguna
HEDO ETXARTE, SUZKO LILIA,
SUSA 2008

abenduak 18, osteguna
MIKEL HERNANDEZ ABATUA,
OHE BAT OZEANOAREN ERDIAN,
EREIN 2001

hikaateneoan, pintore kalea 13,
20:00
kontaktua: iban.zaldua@ehu.es

www.geugasteiz.com
geuelkartea@grn.es /
945222153



OHEAN ANTZEZLANA

MASKARADA

abenduak 3 - EUSKARAREN
EGUNA

principal antzokian 20:30

Sarrerak doan:

- azaroaren 19tik aurrera gab-en (gazteen argibideetarako bulegoa, plaza berrian)
 - GEUrekin harremanetan jartzen zareten lehen 50 bazkide edo harpidedunek erreserbatuta izango dituzue 2na sarrera leihatilan: geuelkartea@grn.es
- antolatzaileak: geu elkarteak, gauekoak, eta erakundeak



XXXIII ANTZERKI JAIALDIA

ARRAINEN BAZKA (TANTTAKA)

azaroak 6
principal antzokian 20:30
18/12/9 euro

JOANEN ILARGIA (TEATRE NU)

azaroak 2 / familiarentzako
antzokia

3-6 urte bitartekoentzat

sarrerak: 6 euro

principal antzokian, 18:00

saltokiak:

principal antzokiko leihatilan +
945161045

www.vitoria-gasteiz.org

www.cajavital.es

www.generaltickets.com

BERTSOLARITZA
Bertsokin jolasteko ikastaroa
UH 3, UH 4, UH 5, eta UH 6. maila duden
unibertsitateko ikasleak



Aurtea zaituz

Hasieta Eguna: Urriak 24
Ordua: 19:00etan
Lekua: Judismendi auzo elkarteak
(Olea y Solis kalea)
Ostiralero egingo dugu
Informazio gehiago eta lekuak emateko: Lukas: 945 281067
Joseba: 688 603870

BERTSOLARITZA

EPAILITZA LANTEGIA

azaroak 6 amaia zentroan

20:00-22:00 doan

irakaslea: asier ibaibarriaga

BERTXOKO

azaroak 6 gasteiz (errexala
elkartean)

eneritz artetxe, miren artetxe, ander

solozabal, ekaitz samaniego, julio

soto, enaitz alustiza

gai-jartzaileak: andere arriolabengoa

azaroak 14 audio (basalarrina
elkartean)

jokin labaien, hodei iruretagoienea,

xabi igoa, izar mendiguren, arrate

ilaro, mikel artola

gai-jartzaileak: lierni altuna

azaroak 21 agurain (astorreka
elkartean)

inaki viñaspre, patxi iriart, jon

elizetxe, jacob aapaolaza, iker agirre,

maddi gallastegi

gai-jartzaileak: idoia beitia

FINALA:

azaroaren 28an aramaion

(eskolan)

gai-jartzaileak: manex agirre

saio guztiak afari giroan,

20:30etik aurrera

info+: arabako bertsozale elkarteak

benito perez galdos z/g 01002 gasteiz

945 010505 - 675707971

araba@bertsozale.com

www.bertsozale.com

BERTSOEKIN JOLASTOKO IKASTAROA

1h 3, 4, 5, 6. mailako

gastetxoentzat

ostiralero, urriaren 24tik aurrera

judimendi auzo elkarteak 19:00

xagumendi auzo elkarteak

info+: 945281067 (lukas) /

688603870 (joseba)

KULTURA ETXEA

AZKEN INPERIOA ERAKUSKETA

- PERISKOPIO

abenduak 8 arte

astelehenetik ostiralera 10:00-14:00

larunbata 10:00-13:30

ZER EZ NUKE EGINGO NIK

ZURE MAITASUNA LORTZEKO

azaroak 13 osteguna

ITZIAR REKALDE & ANDER

LARREA

ipuin eta musika emanaldia

hitza kultura etxean 20:00

afa-ko euskara, kultura eta kirol saila

ccultura@alava.net

www.alava.net



GAUEKOAK

UDAZKENEKO EGITARAUA

egitarau osoa (pdf):

www.gauekoak.com

-IRUDI TXOKOA

azaroak 7, 20:00

KARAMUK BEGI BELTZAK

azaroak 14, 19:30

HARRY POTTER ETA SORGIN-

HARRIA

luis de ajuria aretoan

orhurm zine kluba & gauekoak

-ANTZERKIA

AUKERAN JARRITA: BABA DE

CARACOL ETA BESTE DROGA

BATZUK

(HORTZMUGA)

azaroak 28, 21:30

2/4 euro aldabe antzokian

info+:

euskera@gauekoak.com

945204009 www.gauekoak.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

KONTSUMO GELAK LANTEGIAK

publizitatea, etiketak, erosketak,
elikadura, segurtasuna...
(bigarren hezkuntzako 2. zikloko
ikastetxeak,
helduentzako ikastetxeak eta
helduen elkarte eta taldeak)
PRESTAKUNTZA PAKETEA
kontsumoari buruzkoak, kontsumo-
gatazken babesaren ingurukoak,
etxeko segurtasuna...
(bigarren hezkuntzako 2. zikloko
ikastetxeak, helduentzako
ikastetxeak
eta helduen elkarte eta taldeak)
IKASTAROA & HITZALDIAK
(biztanleria guztia oro har)
info+: 945016600/a-
kontsumo.gelak@ej-gv.es

BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ

PAGOETAKO PARKE NATURALA
09 ekaina bitartera
bisita gidatuak euskaraz
943835389
www.aiapagoeta.com



MONTEHERMOSO KULTURUNEA
asteazkenero, 19:30 (ez da
beharrezkoa deitzea) /
larunbatetan, 13:00
taldeak: asteartetik ostiralera,
18:00 (aurretik erreserba eginez)
[945161859 /
educacion@montehermoso.net]
bisitaldiaren hasiera: argibide
zerbitzuan
ERAKUSKETAK
-PASAHITZAK 5 (otsailak 1 arte);
EUROPEAN COMMUNITIES
(urtarrilak 4 arte); RENDEZ-VOUS
NOWHERE (urtarrilak 4 arte); ESA
SUBSTANCIA QUE MANCHA
(urtarrilak 11 arte); SESTAON BIZIZ
(periscopio 08. abenduak 7 arte)
HAU EZ DA BISITA BAT
igandero 13:00
bisitarietako protagonismoa hartzen

duten zenbait dinamikaren bitartez
erakusketari buruzko diskurtso
berriak eraikitzen dira
www.montehermoso.net

ANDRA MARI KATEDRALA
945255135
www.catedralvitoria.com

**GASTEIZKO ERDI AROKO
HARRERIA**
erreserbak: andramari katedralaren
bisitarien zentroan / 945 255 135
4 bisita eguneko (iraupena:
ordubete): 11:15, 12:45; 17:15, 18:45
2 euro pertsonako

IRUÑA-VELEIA
945403044 / 652720947
www.veleia.com

GATZ HARANA. GESALTZA AÑANA
astelehenetik igandera (jaiegunak
barne), 11:00 / 12:00 / 13:00 / 16:00
/ 17:00 / 18:00
bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino
gehiagoko taldeak
helduak: 3 euro / lagundutako
haurrak: dohainik / taldeak: euro 1
945351111
www.vallesalado.net



ARTIUM

**ERAKUSKETEN BISITALDI
GIDATUAK**
asteazken, larunbatero eta igandero
(11:30, euskaraz)
banako bisitariarentzat. doan. plaza
mugatuak

**TALDEENTZAKO BISITALDI
HITZARTUAK**
derrigorrezkoa aldeztu aurretik
erreserba egitea (73 euro)

ARTIUMTXIKIA
3-5 urte, helduek lagunduta,
12:15-13:30
azaroak 2
nire aitona-amonek kontatzen
didatenean
azaroak 9
hannahen munduak

azaroak 16
oroitzen zara?
azaroak 23
begira, begira, begiratu ondo
azaroak 28
handia eta txikia

GOIZEAN ARTIUMEN
6-11 urte, helduek lagunduta,
12:00-13:30
azaroak 2
denboraren makina
azaroak 9
bat guztientzat eta guztiak batentzat
azaroak 16
iragana, oraina eta etorkizuna
azaroak 23
gogoratuz gogoratu nintzen
azaroak 30
tribuko zaharrak

**FAMILIENTZAKO BISITALDI
GIDATUAK**
5-11 urte, helduek lagunduta,
12:30- 3:15
azaroak 1 & 2
arte bidelagun
azaroak 8 & 9
artearekin istorioak kontatuz
azaroak 15 & 16
heroiak
azaroak 22 & 23
objektuak artean
azaroak 29 & 30
nor da nor?

[*]: euskaraz izan daitezkeen
ekintzak dira, une bakoitzean
bildutako taldearen arabera

info + erreserbak: 945209010
www.artium.org

MONTEHERMOSO. TAILERRAK (umeak & gazteak)

CMKTALDEA
larunbatero 11:00-12:30
doan, aldeztu aurreko izen-ematea
8-13 urte bitartekoentzat
TXIKIART
larunbatero 18:00
doan, aldeztu aurreko izen-ematea
4-8 urte bitartekoentzat (heldu batek
lagunduta)
www.montehermoso.net

HAURRENTZAKO ALBUMAK SORTZEKO III. ETXEPARE BEKA

epea: azaroak 28
haurrei zuzendutako idazlan ilustratu
hoberenarentzat
bakarka edo taldeka aurkezteko
aukera
6.000 euroko laguntza + lanaren
argitalpena
lanak burlatuko udaletxean jasoko
dira

**FAMILIA
OSOARENTZAKO
JARDUERAK GIZARTE
ETXEETAN 08-09**
www.vitoria-gasteiz.org

GALTZAKOMIK KOMIKI LEHIAKETA

epea: azaroak 26
943655004 /
kultura@galtzaundi.com
www.galtzaundi.com

AGUSTIN ZUBIKARAI VIII. SARIA

(NOBELA LABURRENTZAT)
epea: abenduak 1
antolatza: ondarroako udalaren
euskara zerbitzua + elkar
946833668 /
mrey@ondarroakoudala.net
943310267 /
elkarlanean@elkarlanean.com

EUSKARAZ BAI!

MATERIALA SALGAI
<http://www.kontseilua.org/denda>

www.kontseilua.org/denda
www.kontseilua.org/denda




GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA
Obra Social
Caja Vital Vital Kutxa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



'TOPONIMIA ADMINISTRAZIOAREN EGUNEROKO JARDUNEAN' IKASTAROA

[EUSKALTZAINDIA]

azaroak 6 durangon
administrazio ezberdinetako euskara
eta kultura sailletako langileei eta
euskalgintza zein kulturgintzako
bestelako entitate edota taldeei
zuzendua
izena emateko eta info+:
Plazaberri agerkariaren 63. zenbakia
www.euskaltzaindia.net

**KREA: KOMIKIA &
POESIA ESKOLA
LEHIAKETAK**

(komikiaren XXVI. & poesiaren IV.
eskola lehiaketak)

lanak aurkezteko epea:
abenduak 15
abarrots marrazkilariak (tmeo), izaera
didaktikoko 'komikiaren oinarrizko
gida bat' sinatuko du
araban edo caja vital kuxtako
jarduera eremuan bizi diren 9 eta 17
urte bitarteko ikasleek parte hartu
ahal izango dute

zerberr*i*

Albiste bilatzailea

Ennen kuin aloitetaan tilin luominen, on syytä muistaa, että kaikki tilin tiedot on
syytä täyttää oikein, jotta tilin käyttö on mahdollista. Jos jokin tieto on väärä,
tilin käyttö ei ole mahdollista. [Lue lisää tilin luomisesta.](#)

Save some: betterni.com | bkk.net | euloffthe.com | finks.net | theinfluence.net

info+ : www.kreared.com

ZERBERRI.COM
EUSKARAZKO ALBISTEEN
BILATZAILE AURRERATUA

- zerberri.com google bilatzailean oinarritutako tresna da
- orain artean, googlek ez du euskarazko albisteen bilatzaileak garatu

- gaztelaniaz, 700 iturrik eskaintzen dituzten albisteak bilatzen ditu googleren tresnak, frantsesez 500 eta ingelesez 4.500 zerberri bilatzaileak, mementuz, 100 albiste iturri inguru arakatzeko, guztiak euskaraz

G.E.A., 'GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDA' DIGITALA iaso nahi?

bidalguzu zure e-posta
geu@geugasteiz.com helbidera
eta hilero jasoko duzu.
gasteizko euskarazko ekintzen
bilduma da G..E.A.
ezinbestekoa Gasteizen
euskaraz mugitzeko!

> lagun euskalduna behar da ume bat zaintzeko honako ordutegian: astelehen/asteazken/ostiraletan, 17:00-19:30 (ikastolatik jaso, etxeko lanak, ekintzetara eraman). 600550331 (eloi)

GEU elkartearen oharra

euskaldunon lan politasun sartu
nahi baduzu, bidali izen-
abizenak eta kontakturako
telefonoa geuelkartea@grn.es
helbidera
eskerrik asko

kanGEUroak

umeak zaintzeko prest
bazaude eman zure izena
zerrenda honetan eta zerbitzu
hau behar dutenak jarriko dira
zurekin zuzenean
harremanetan. horretarako,
bidali geu@geugasteiz.com
helbidera zure izena, telefona
eta ordutegia
(goizez/arratsaldez/gauetz/egun
osoz/asteburuak).

OHEAN

MATIAS BIZÉ-REN FILMEAN OINARRITUTAKO ANTZEZLANA

OIHALA ALTXATU ETA LAGUN BI AGERTZEN DIRA. NESKA BAT ETA MUTIL BAT. GAZTEAK, HOGEITA ZORTZI URTE INGURUKOAK. LARRUA BASATIKI JOTZEN ARI DIRA. ETA ORGASMOA IZAN ONDOREN, HIZKETAN HASI DIRA.



ABENDUAK 3 - EUSKARAREN EGUNA GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIAN 20:30EAN. DOAN

ANTOLATZAILEAK: GEU ELKARTEA + GAUEKOAK + UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA +
GAZTERIA ZERBITZUA + ARABAKO FORU ALDUNDIA + EUSKO JAURLARITZA

- Jatorrizko gidoia: Julio Rojas
- Egokitapena eta itzulpena: Unai Elorriaga
- Musika: Rafa Rueda
- Eszenografia: Gorka Minguez
- Ekoizlea: Maskarada
- Aktoreak: Aitor Beltran eta Matxalen de Pedro
- Zuzendaria: Carlos Panera

>Sarrerak:

GABen, Gazteen Argibideetarako Bulegoan azaroaren 19tik aurrera (Plaza Berrian). 2 sarrera banatuko dira pertsonako.

(Geu-rekin harremanetan jartzen zareten lehenengo 50 bazkide edo harpidedunek bina sarrera izango dituzue erreserbatuta antzokiaren leihatilan. Deitu 945222153 telefono zenbakira edota idatzi geuelkartea@grn.es helbide elektronikora zuen izen-abizenak zehaztuz eta gordeko dizkizuegu gonbitak)

t. ainhoa arriaga

a. artxibo

Jada gainean dugu abenduaren 3a, 1949an Eusko Ikaskuntzak sortu Euskararen Nazioarteko Eguna (ENE). Egun, euskaltzaleok asko dugu ospatzeko, aldarrikatzeko duguna ahaztu barik. Hartara, data esanguratsu hau aitzakia hartuta antzezlan berritzailea izango dugu gurean. GEU elkartearen eta GAUEKOAKen ekimenez eta erakundeekin elkarlanean (Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) Maskaradaren 'Ohean' antzezlan izango dugu lehenbizikoz Gasteizen. Hiriko txoko eta alor guztietan euskarak egon behar duela ulertzen dugulako, kalitatez eta baita formatu handian ere.



MATXALEN DE PEDRO, AKTOREA:

“Antzezlan hurbila egitea izan dugu helburu”

Matxalen de Pedro Bilbon sortu zen orain dela 27 urte. Txikitatik izan du aktore lanetan aritzeko grina, “antzerki taldeetan sartzen nintzen, ikastaroetan”. Keinu antzerkian lizentziatua dugu, eta lan garrantzitsuenen artean ‘Romeo y Julieta’ antzezlan arrakastatsua topa dezakegu. Telebistan eta zinean ere ikusi dugun arren, antzerkia du gogokoen, izan ere, “zuzeneko aurkezpen batean sortzen den arrisku egoera” maite baitu, “edozein gauza gerta daiteke eta horrek oso era indartsuan konektatzen gaitu ikusleak eta antzezleok bizitzarekin, momentuarekin”.

Matxalen da, Aitor Beltranekin batera “tragi-komedia erromantiko” honen protagonista.

Martxoaren 2an estreinatu zenuten Bilboko Arriaga antzokian. Zer moduz joan zen dena? Zer moduzko harrera izan zenuten?

Niretzat Arriagan estreinatzea gauza handia zen. Hunkigarria eta pittin bat beldurgarria, baina hain ongi tratatu gintuzten bertako guztiek... azken emanaldia eta gero ez genuela alde egin nahi! Jende asko etorri zen eta denetariko erantzunak egongo zirela suposatzen dut, baina orokorrean kritika onak jaso genituen.

Gaur egungo antzerkigintza ez dago ohituta sexu harremanak hain era argian erakustera. Baina gu, Euskal Herriko publikoa, ohituta al gaude halakoak ikustera? Zailtasuna ekarri du?

Bai ba, hasieran ez genekien nola erantzun- go zuen jendeak, zelan jasoko ziren sexu eszenak eta horrek nola eragingo zuen antzezlanaren osotasunean. Konturatu

ginen lehenengo sexu eszenaren ostean tentsio airean geratzen zela eta aurrerago barre egiteko aukera txikienean algarak egoten zirela tentsio hori askatzeko. Normala da. Gero ohitu egiten zara bai ikusle eta bai antzezle bezala. Azken finean sexua antzezlanaren parte txiki bat baino ez da. Ez du beste munduko garrantzirik, baina gure istorioa era natural batean aurkezteko beharrezkoa da.

Beraz, zer aurkituko dugu istorioaren ardatza den sexu-harreman horren atzean?

Bi pertsonaren arteko topaketa da. Neska eta mutil gazte bi, gure kasuan, baina edozeinek izan duen topaketaren bateko une ezagunak islatzen ditu. Nola jokatu ezezagun batekin, nola sentiarazten gaituen, zer kontatzen diogun gure buruari buruz eta nola aurkezten garen... Estriptis pertsonal bat jasotzen da eta pixkanaka estriptis emozionalera iristen dira gure pertsonaiak inori inoiz esan gabekoak aitortu arte.

“bi aktore baino ez gaude eta gure eszena jartzea ere oso minimalista izanik (ohea eta listo ia) entrega handia eskatzen dio aktoreari”

Zer dakarkio zu bezalako aktore bati, eszenatokian, zuzenean, publikoaren aurrean biluzteak, bai kanpotik bai barrutik?

Oso lan gogorra da. Funtzio neketsua, batez ere barneko edo emozioen biluziari dagokionez. Gainera, pentsa bi aktore baino ez gaudela eta gure eszena jartzea ere oso minima-

lista izanik (ohea eta listo ia-ia) entrega handia eskatzen dio aktoreari. Aldi berean interesagarria da hori, apustu estetiko hori.

“gure gauza asko sartu ditugu antzezlanean: esamoldeak, bromak, komentarioak... eta horrek antzezlana bereziago egiten du guretzat, gureagoa”

Zein puntutaraino izan zarete leialak jatorrizko Matias Bizeren ‘En la Cama’ filmari? Eta zertan desberdintzen dira euskarazko bertsioa eta gaztelerazkoa?

Gurea nahiko bertsio libre da. Alde batetik, zinematik ematen dituen aukerak ez dira antzerkiaren berdinak eta hor aldaketa beharrezko batzuk ezinbestean egin behar ziren antzezlanean tentsioa eta erritmoak funtzionatzeko. Bestelako aldaketak ia nahi gabe iritsi ziren. Hasieran inprobisaketen bidez hasi ginen euskaratzen baina konturatu ginen Euskal Herriko errealitatera hurbiltzeko gauza batzuk aldatu behar genituela, hizkuntzaz gain noski. Gure gauza asko sartu ditugu antzezlanean: esamoldeak, bromak, komentarioak... eta horrek antzezlana bereziago egiten du guretzat, gureagoa. Gaztelerazkoa, ordea, nahiko leiala da ■

ESZENOGRAFIA GORKA MINGUEZ

Gorka Minguez, Arte Ederretan lizentziatutako produktore, eszenografo eta aktorea dugu. 2003 urteaz geroztik da Maskarada antzerki taldearen partaide, besteak beste. En la Cama, Maldito parné, Ezker-eskuma, Picasso, 1937-Historia del Guernica... obretan egin du lan. Gorkak Ohean antzezlanean oso apustu garrantzitsua egin du, izan ere, oso eszenografia minimala du obrak, ostatu baten logelan gertatzen baita dena. Berezitasun nagusia “ohea biraka dabilela da, horrela, eszena bera ikuspuntu desberdinetatik ikus daitekeelarik”. Ohea bera da, antzezlanean altzari protagonista, bertan “gezurretan ibili, sentitu, barre egin, gozatu... egingo dute pertsonaiek”.





AITOR BELTRAN

Aktorea

Aitor Beltran 33 urteko aktore eta musika irakasle donostiarra dugu. Artearekiko lotura txiki-txikitatik sentitu izan du eta aitortzen digunez, betidanik izan du gogoko "irudimenarekin jolastea, antzerkiera eta zinemara joatea, irakurtzea...". Hortaz, antzerkigintzara profesionalki dedikatzea erabaki zuen 18 urte zituelarik. Madrilera jo zuen formazio bila eta bertan topatu zuen bere lehenengo lana. Telebistan, besteak beste, *Al salir de clase*, edota *Goenkale*-n ikusi izan dugu Aitor, baina parte hartu duen telesail guztien artean Miguel Ángel Solá-ren *UCO* telesaila hautatzen du berak, "oso lan txukuna egitea

lortu dugu". Lanbide dibertigarritzat du berea: "ba ote dago lanbide dibertigarriagorik? Jolastea bezalakoa da, orain pirata bat izango naiz, orain hiltzaile bat eta orain astronauta bat...".

Antzerkian egin duen lanetatik Ohean da bere kuttuna, hartan ere, erronka izugarria izan baita berarentzat, "bi aktoreak eta ohea, bakarrik, interpretazio erritmo handiarekin eta antzerkia bere sinpletasun osoan".

CARLOS PANERA

Zuzendaria

Arte Ederretan lizentziatua, Carlos ere gazte-gaztetatik ibili da antzerkigintzan murgilduta. Théâtre du Soleil-ekin egin zuen lan Parisen eta Maskaradako zuzendaria izan da konpainia sortu zenetik. Bere ibilbide luzean zehar arrakasta izugarritzko lanak zuzendu ditu, hala nola, Ernesto izatearen garrantzia (Oscar Wilde), Nerudaren postaria (Antonio Skármeta) eta Kontrabaxua (Patrick Süskind), Euskal Herriko antzerkigilerik entzutetsuenetarikoa bilakatu dutenak.

Hainbat sari jaso ditu Carlosek, besteak beste, Ertzilla Saria 1984an eta 1995ean, Rosa Agirre Saria 1994an, MAX sarietarako hautagaia izan da birritan... Azkenekoa 2006ko uztaillean jaso zuen Midland-en (Texas, AEB), zuzendari hoberenaren saria eskuratu zuenean *Picasso, 1937- Historia del Guernica* lanarekin.



MASKARADA

Maskarada Bilbon sortu zen 1980 urtean euskarazko antzerkigintzari duintasuna emateko asmoz. Gaur egun, helburua bera delarik, beste bide batzuk ireki dituzte erdarazko antzerkigintzan muturra sartuz. Hori horrela, euskarak antzezlanetan duen garrantzia izugarria da, "hizkuntzarekin jolastea gustatzen zaigu", azaltzen digute. Ez dira gutxi izan zailtasunak Maskaradaren ibilbidean, batez ere, publiko eta merkatua egonkortze aldera. Hala ere, arrakasta lortu dutela ezin duda dezakegu, horien adibide gaur egun pilatutako sariak, esaterako: Ertzilla Sariak, Abraso Sariak, MAX sarietara izendapenak, AEBetan hainbat sari...

GASTEIZKO ANTZERKI JAIALDIA

Gasteizko Antzerki Jaialdiak 33 urte bete ditu dagoeneko. 1975 urtean jaio zen Denok kooperatibaren eskutik eta ordutik aktore eta aktorea andana igaro dira Gasteizko eszenatokietatik. Gaur egun Principal Antzokia da jaialdiaren erreferentzia lekua, baina dagoeneko desagertutako Guridi eta Florida antzokiak ere urtetan izan dira antzezlan dotoreen lekuko, besteak beste. Aurtengo edizioan 29 dira hilaren bukaera arte antolatu ikuskizunak eta horien artean, esaterako, Juan Diego Bottoren Hamlet antzezlan eta Els Joglars, Animalario, Familie Flöz, Umbilical Brothers edota Teatro da Mangiare konpainia ezagunak daude.

Ikus dezagun zer entzuten den Gasteizko kaleetatik barrena antzerki jaialdiaren inguruan.

t./a. ane pedruzo

1. Zer deritzozu Gasteizko antzerki jaialdiari buruz?

2. Joateko ohiturarik al duzu?



Igor Martinez de Antoñana, 24 urte, langilea

1. Ekimen interesgarria dela uste dut. Dena den, nahiko estandarra iruditzen zait, nik konpainia alternatiboagoi egingo nieke leku, bestelako ikuskizunak ere egon daitezkeen.
2. laz egon nintzen eta aurten ere joateko asmoa daukat, baina oraindik ez dut sarrerarik erosi, ez dakit zein antzezlan aukeratu.



Marta Nieto, 23 urte, psikologoa

1. Antzerkia bultzatzeko ideia polita dela uste dut, izan ere, jendeak ezagutzen dituen antzezlanak daude eta horrek asko erakartzen du. Antzerkia zabaltzeko ekimen aproposa da.
2. Ez naiz gasteiztarra, baina nire hirian askotan joan ohi naiz antzerkira, batez ere ikasleentzako salneurri baxuagoak eskaintzen dituztenean. Oso antzerkizalea naiz, txikitan zazpi urtetan zehar antzerkia egin nuen. Horregatik eta seguruenik jaialdia amaitu baino lehen zerbait ikustera joango naiz, baina oraindik ez dakit zein antzezlan dauden, informatu beharra daukat.



Idoia Anzizar, 36 urte, irakaslea

1. Ondo deritzot eta asmoa neukan joateko baina seme-alabak eta lana direla eta ez dut aukerarik... pena da.
2. Duela hainbat urte joan izan naiz, baina gero eta zailagoa egiten zait horrelakoetan parte hartzea...

idazleen zutabea

SAUDADE

t. jon arretxe

Ez da samurra fadisten bizi-modua. Hainbat fado-etxe daude Lisboako auzo zaharretan sakabanatuta, eta denetan aurki daitezke hiru bat kantari, txandaka jarduten dutenak gauero lauzpabost ordutan. Ez da samurra haien bizimodua, hogeita bost bat euro besterik jasotzen ez dutelako egun bakoitzean euren lanaren truke.

Sarritan sumatzen da haien aurpegietan ez daudela lar pozik, baina soldata eskasa ez da arazo bakarra izaten. Are mingarriagoa izaten da afaltzen ari direnengandik jaso ohi duten arreta urria. Hauek zaratak egiten dituzte mahaiko tresnekin, ozenki mintzatzen dira eta barreka jarduten dute, batere arduratu barik entzuten ari diren fadoaren musika ederraz eta letra ederragoaz. Kanta bakoitzaren amaieran baino ez diote erreparatzen artistari, halako irribarre faltsu bat fortzatu eta konpromisozko txalo batzuk egiteko.

Hiruna fadoko txandetan jarduten dute fadistek jatetxeetako kantaldietan, eta haien sufrimendua ere hirukoitza dela esan liteke: batetik ordainsariagatik, bestetik entzuleen jarreragatik eta, amaitzeko, benebenetan sentituz kantatu ohi dituzten letrengatik. "Saudade" da barbarik errepikatuena kantu horietan, eta jende asko ahalegindu da horren esanahia zehazten. Gustatu zitzaidan definizio bat irakurri nuen lehengoan aldizkari portugaldar baten: "a saudade e um sentimento de melancolia, mas e uma melancolia feliz".

Idea kontrajarriak eman dezakete malenkoniak eta zorionak, baina nik esango nuke fadista gehienek aurpegiera enigmatikoek ideia horiek transmititzen dituztela, fatalismo puntu batez osaturik. Nekez ikusiko da fado-kantari bat bere onetik aterata entzuleen arreta eskasiagatik, edo eztabaidan jatetxeko jabearekin soldata hobea nahi duelako, edo erabat etsita inork bere ahotsaz grabatutako CDrik erosten ez diolako. Saudadea da, hain zuzen, euren ezkutua bizitzak edo patuak ekar litzakeen zoritxarren kontra■





eguneko
menua



GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

dalvez




info@dalvez.com

azkarprint
Imprenta / Inprimategia

Landazuri, 7 - 945 23 30 01
GASTEIZ

♦ INPRIMATEGIA ♦

DIBUtec

Papertegi teknikoa

Landazuri, 7 - 945 13 06 07

Erraman
Argazki - Estudioa

Heraclio Fournier, 23
(laborategia)
945 13 71 02

Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

LA RIOJANA
on egin!!! **jatetxea**

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkaturia - Zaldiaran plaza GASTEIZ

El Clarete
jatetxea



unai eta patxi fdz. de retana

zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874




KIDE
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

CUENCAN JAIOTAKO GUDARI BATEN MEMORIAK

'La Mancha nos dio un gudari, mis memorias' liburua aurkeztu ondoren, Txagorritxuko Harreta Bereziatako Unitatean ospitaleratu zuten Jose Maria Horcajada Martinez 'Josetxiki', biriketako gaitz larriak jota. Zorionez, urriaren lehenengo bi asteak ospitalean egin ondoren, dagoeneko Iruña Okako bere etxean dago, eta telefonoz erantzun du Geu aldizkariaren deia.





t. & a. gorka etxabe otadui

“Gerra zibilari egin nion aurre. Ondoren, gerra-osteko kartzela, kontzentrazio-esparru eta lan batailoia ezagutu nituen. Bizitza gogorra izan dut, baina 88 urterekin esan dezaket merezi izan duela, eta oraindik borrokatzeko prest nago”. Indarrez eta gogotsu erantzun digu bere etxetik Josetxikik. Cuenca-ko Huelves herrian jaiotakoa 1920an, laster ikasi zuen Josetxikik Euskal Herria maitatzen eta maitasun hori seme-alabei eta bilobei transmititzen. Orain, bere bizitzaren pasarterik gogoangarrienak, traumatikoenak eta bere lekukotza jaso du liburu ederrean.

La Mancha nos dio un gudari

Jose Maria Horcajadak Aretxabaletako Udalaren babes eta laguntzarekin argitaratu du liburu. Gerra garaiko zein gerraosteko bizipenetan oinarritutako argitalpena da, estilo arinean hamaika pasarte eta istorio jasotzen dituena. Mila ale argitaratu dituzte eta hamar eurotan saltzen ari dira Aretxabaletako kultur etxean eta herriko beste zenbait dendatan.

Lau urte zituela iritsi zen Josetxiki familiarekin Aretxabaletara (Gipuzkoa), izan ere, aitzak Vasco-Navarro burdinbidearen Aretxabaletako geltokian aurkitu zuen lana, tren geltokiko arduradunaren



laguntzaile. "Euskal Herrira iritsi aurretik dezente kalamitate igaro genituen. Cuencan laborantzatik bizitzerik ez zegoen, eta etorkizunik gabeko bizitzari amaiera ematea erabaki zuen gure aitak. Lehenengo Madrilera joan ginen, eta handik Aretxabaletara". Lau urte baino ez zituen Josetxikik Aretxabaletara iritsi zirenean, baina ondo baino hobeto gogoratzen ditu urte haiek.

"Interesa eta borondatea izanez gero, samurra da etorkin batentzat Euskal Herrian integratzea", dio Josetxikik. Eta hori egin zuen Euskal Herrira iristean. Euskara eta euskal kultura maitatzen ikasi. Lagun ugari egin zituen Aretxabaletan, eta gerra aurreko urteak bere bizitzako onenak bilakatu ziren.

Izua, sufrimendua eta hondamendia

Gerra zibilak Aretxabaletan harrapatu zuen Josetxiki. 1936ko irailean sartu ziren faxistak herrian, eta Josetxikik Bizkaia aldera egin zuen alde. Durangon gudari egin zen Euskadiko Gudarostean, ingeniariaren batailoian, eta handik Larrabetzura eraman zuten, bertako posizioak defendatzera. Bilbon ere egun dezente egin zituen eta Bizkaiko hiributrutik Kantabriara egin zuten alde, Santoñan erori zen arte. "Gerra garaian izua, sufrimen-

dua eta hondamendia izan ziren gure bidela-gun. Eusko Gudariak gogor egin genuen Euskal Herriaren alde, duintasun handiarekin borrokatu genuen, baina faxistek zapaldu egin gintuzten".

Gerra ostean, preso hartu zuten eta Santanderetik Donostiako Ondarretako presondegiara eraman zuten. Handik, Aretxabaletako Zarraoa etxera, eta han ere giltzapean izan zuten. Gerra osteko urterik gogorrenak, ordea, ondorengoak izan ziren. "Miranda, Madril eta Reuseko kontzentrazio-esparruetan eduki ninduten, gizonak bizi dezakeen bizi-baldintzarik okerreten. Gero, bi lan batailoiei ezagutu nituen; Juberakoa, Sorian eta Garrapinillosekoa, Zaragozan. Gudari izatearen zigorraldia Menorkan amaitu nuen, Mahonen. Bertan soldaduzka egin behar izan nuen-eta".

1945ean Gasteizera, askatasun bila

Gerra garaiko kalamitateak igarota, 1945ean Gasteizera iritsi zen eta ACESA enpresan hasi zen lanean, Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalean. "Gasteiz hiri txikia zen, eta izugarri hazi zen urte haietan. Industria ugari sortu ziren. Gogoan dut, Debarrotik enpresa-

rio asko etorri zirela Gasteizera. Aretxabaleta, Oñati, Eibar, Elgoibar eta Arrasatek, batez ere". Juanito Zelaia Oñatikoa, Juan Arregi Aretxabaletakoa, Arrasateko sarrailagintza enpresak, Soraluzeko Arando, Ajuriaren laborantzako makineria, Eibarko Orbea eta Gabilondo, eta Elgoibarko beste zenbait enpresa Gasteizen ezarri ziren XX. mende erdialdean.

Gasteizek urte hartan 40 mila biztanle inguru zituen. Jose Maria Horcajadaren familia Frantzia kaleko etxebizitza batean bizi zen, eta bertara joan zen bizitzera Josetxiki, askatasun egarritz. Eta askatasuna lanak eskaini zion. ACESA enpresan lanean zebilela, Laminaciones Arregirekin bat egin zuen ACESAk, biak ere Arregi familiaren lantokiak ziren. "Tomas Zumarraga Dohatsuaren kaltetik, Gamarrako atera joan ginen. Hasieran laminazioak genituen eta ondoren laba erraldoiak jarri zizkiguten. 28 urte egin nituen Arregitarrentzat lanean eta azken urteetan pertsonal zuzendari izendatu ninduten".

Urte onak igaro zituen Josetxikik Arregiren alboan. Gogotik egin zuen lan, merezitako lan-ordaina jasota. Ordutik harreman estua mantentzen du Arregi sendiarekin.





Gasteiz erabat erdalduna

Jose txikik 25 urte zituen Gasteizera iritsi zenean. Aretxabaletatik 15 urterekin egin zuen alde eta Gasteizen guztia zen berria berarentzat. "Niretzat guztia zen modernoa eta berria. Kaleak, dendak, hizkuntza,... Nik euskaraz hitz egiten nuen eta Gasteizen inork ez zuen egiten. Apaizak, mojak eta militarrek besterik ez zeuden hemen, eta beldur handia kaleetan. Erabat giro erdalduna zen Gasteizkoa, Burgosen, Logroñon edo Sorian aurki zitekeen modukoa". Hiri txikia zen Gasteiz eta gehienok elkar ezagutzen zuten. Industrializazioak, ordea, hiria aldatu zuen. Industriaren garapenarekin batera sortu ziren auzoak. "Urteen joan-etorriak hiri berria ekarri zuten. Hala ere, euskarak tarte txikia izaten jarraitzen zuen".

Zorionez, lanean euskaraz hitz egiteko aukera izan zuen Jose txikik. "Debarroko enpresari asko zegoen eta Leintz ibarreko langileak ere bazeuden. Horiekin euskaraz egiten nuen, eta haiek ziren euskarazko erreferentzia bakarrak niretzat Gasteizen. Gerora, asko aldatu da egoera eta gaur egun, euskarak esparru zabalagoa du hemen. Baina, orduan, ezer gutxi".



1978an Iruña Okako alkate

Erretiratu arte, Jose Maria Horcajadak Arregiren enpresan egin zuen lan, eta jubitalu ondoren politikagintzan murgildu zen. "Politikagintzan bainoago herrigintzan murgildu nintzen. Izan ere, 1978an, Iruña Okako alkate izendatu ninduten".

Frankoren heriotzaren ondorengo lehenengo hauteskundeetan izendatu zuten alkate, EAJ alderdiarekin. Gero, beste hiru agintaldi ere egin zituen Jose txikik Iruña Okako Udalean. Lehenengo agintaldiak EAJrekin eta beste bi EArekin. "Alkate izendatu nindutenean nire asmoa herritarren alde lan egitea zen, kulturaren alde eta euskararen alde lan egitea. Nire agintaldian, besteak beste, ikastola ere sortu zen gure herrian".

Gaur egun, Tresponden bizi da familiarekin. Bi seme-alaba ditu eta beste horrenbeste iloba. Ekainean beteko ditu 89 urte eta bere buruarekin zuen zorra kendu duela ziurtatu digu. "Memorien liburua oso garrantzitsua izan da niretzat. Beharra nuen idazteko eta eskertuta nago nire ametsa errealitate bihurtzen lagundu didaten guztiei". Bejondeizula Jose txikik ■

Liburua eskuratzeko aukera

Liburua eskuratu nahi izanez gero, Aretxabaletako Udaleko kultura sailarekin harremanetan jarri beharko zarete. Honako helbide elektronikoan kultura@aretxabaleta.net edo honako telefonoan 943 08 10 01.

CRISTINA REDONDO

Gasteiztar adorea dugu Cristina. 50 urte. Betidanik izan du unibertsitatera joateko desira baina bizitzak administrari ikasketak burutzer a bideratu zuen azkenean. Gaur egun langabezia dago eta gogoz ari da oposaketetarako ikasten. Makina bat azterketa egin ditu dagoeneko eta bakoitzaren ostean beti agertu da itxaropentsu, egindako lanak zer baitetarako balioko duela argi baitauka, eta ez zaio arrazoirik falta! Mendira joatea maite du eta horrez gain orduak igaro ditzake irakurtzen, gauero lo hartu baino lehen tartetxo bat eskaintzen diolarik momentuko liburuari. Euskararekin konpromiso estua izan du betidanik Cristinak.



t. ane pedruzo a. edorta sanz

Duzun biziorik handiena? Erretzea. Urte gehiegi daramatzat erretzen eta behin baino gehiagotan utzi dudan arren beti bueltatu ohi naiz.

Bertuterik? Pertsona borrokalaria naizela esango nuke.

Akatsik? Batzuetan jenio txarra daukat...

Zer eskatzen diozu bizitzari? Lasaitasuna eta osasuna batez ere.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Desordenak izugarri aztoratzen nau. Honez gain, ez dut larderia jasaten, ezta pertsona "trepak" ere.

GEU aldizkaria eta elkartearen berririk?

Noiztik? Ez dakit zehatz-mehatz baina aldizkaria duela 12 bat urte ezagutu nuela esango nuke, euskara ikasten nengoela. Orduan harpidedun izatea erabaki nuen. Oso gogoko dut batez ere hemengo gaiak nabarmentzen dituelako.

Egunkari bat? Ez nuke bat aukeratuko orokorrean ez zaizkidalako gustatzen, batek ere ez du egia osorik esaten. Dena den, baten bat irakurtzekotan Diario de Noticias de Alava da.

Telebista saio bat? Bones eta El conquistador del fin del mundo jartzen dutenean.

Beldurrik? Normalean jendeak heriotzari

dio beldur, niri ordea nire semea edo alaba baino gehiago bizitzeak izutzen nau.

Oporrak non eta zertarako? Tokia ez da garrantzitsua baizik eta norekin zoazen eta zu zeu nolakoa zaren. Halere, Roma esango dut, oso hiri eroso eta izugarri polita iruditzen zaidalako.

Nora ez zinateke joango? Hotel eta jende asko dagoen hondartzetara, Benidormera adibidez.

Eguna ala gaua? Eguna noski! Gustatzen zaizkidan gauzak egunean zehar egiten ditut.

Gasteizko gaua non? Nire etxean.

Liburu bat? Irakurri dudak azkena, 'Cometas en el cielo'. Istorio tristea da baina

• Duela 20 urte hizkuntza ikasten hasi zen eta seme-alabak edo lana zela, denboraldi batez baztertu egin zuen. Gaur egun, bazekiena berreskuratu eta hobetzeko asmoz, euskaltegira doa egunero eta gainera mintzalaguna izatea erabaki du.

• Bizitzak eskainitako momentu ederrak gorde eta txarrak baztertzeko saiatzen den pertsona dugu Cristina eta oraingoan gurekin hainbat sekretu partekatzea erabaki du. Esperientzia hau oroitzapen politen artean gorde dezala espero dugu...

sentimendu asko transmititzen ditu.

Film bat? Zergatik? 'Memorias de Africa'. Protagonistek Kenyako hondartzetatik zehar egindako hegaldien irudiak askotan gogoratzen ditut

Edari bat? Arabar errioxako ardo beltza.

Janari bat? Bakailaoa pil-pil erara.

Kolore bat? Arroparako beltza eta bestela laranja.

Musika talde bat? Police.

Kirol bat? Mendira joatea.

Gasteizek duen onena? Zabala dela.

Eta txarrena? Oso herrikoa (probintzianoa) dela.

Euskaraz bizi al daiteke gasteizen?

Gero eta gehiago. Gaur egun euskaraz egiten entzuten badizute, leku askotan erantzuten dizute. Halere, ni neu momentuz ez naiz euskaraz hastera ausartzen, lotsa eta ohitura ezagatik.

Amets bat? Historia ikastea unibertsitatean.

Amesgaizto bat? Nire senideei zer bait txarra gertatzea.

Iragana, eguna ala etorkizuna? Gaur eguna. Izan ere, egindakoa egina dago, eta etortzekoa auskalo! Momentuan duguna onartzearekin eta bere alde borrokatzearekin nahikoa dugu.

Zer eskatzen du herriak? Krisi ekonomikoa eta tranbiaren lanak amaitzea ■



BLANCA GARCIA:

***“Idazten ez
da ikastolan
ikasten”***

Bost lan eta bost sari. Harkaitz Canok ezarri zuen marka berdindu du Blanca Garciak Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Urruzuno Literatur Lehiaketan. Iaz parte hartu zuen lehenengo aldiz; orduan ‘Route 66’ ipuinarekin lortu zuen saria. Aurten hiru ipuin eta bi poesia aurkeztu ditu eta denak izan dira sarituak. Hala eta guztiz ere, ez da idazle sentitzen.

t. naraa cuesta a. edorta sanz

Hamasei urteko gasteiztarra da Blanca. Armentia Ikastolan egin ditu derrigorrezko ikasketak, eta duela bi hilabete hasi zen Zientzietako Batxilergoa ikasten Hegoalde Ikastetxean. Idazteko ez du arkatzik erabiltzen, trebetasuna lortu du dagoeneko ordenagailuko teklatuarekin. Bertan gordetzen ditu azkeneko urteetan idatzitakoak. Ipuinak dira gehienak. Poesia idazteko ausardia behar dela dio, eta horren bila ari da Blanca irakurri eta irakurri. Irentsi egiten ditu gustuko dituen autoreen liburuak. Emozioak, sentimenduak eta fantasiak kaleratzeko idazten du gazte honek.

Urruzuno Literatur Lehiaketan parte hartzeak pasarte ahaztezinak eskaini dizkio Blanca Garcinari. Onena, irabazleek egiten duten bidaian ezagututako lagunak. Gasteizko beste neska batek ere, Oskiak, saria lortu du eta. Ezer esan gabe elkar ulertzen dute Blancak eta Oskiak, oso harreman berezia lortu dute. Italia iparraldean egon ziren iragan urtean; aurten, aldiz, Errumania ezagutzeko aukera izan dute. Hogei gaztek parte hartu ohi dute bidaia honetan. Haiekin batera Idazleen Elkarteko kide batek du hamar egunez gozatzeko parada, nahiz eta lotarako tarte askorik ez dioten uzten nerabeek. Xabi Paiak uda honetan Errumanian barrera jasotako bizipenekin liburu bat idazteko adina izango du jada. Halaber, saritutako lanak 'Sagasti Berri' sortan biltzen ditu Eusko Jaurlaritzak.

'Irri beltzak ez du irri izenik merezi' saritutako lan baten izenburua da. Bertan, Auswitchera doan mutil baten istorioa kontatzen du Blancak. "Errealitate gordina ironiaz tratatzen saiatzen naiz", diosku. 'Mermelada gorriko opil beltza' ipuinean, aldiz, koloreak gustuko ez dituen mutil baten bizitzaren pasarteak azaltzen dizkigu. Irudimena ez du falta neska lotsati honek. Urduritasuna irentsi, eta lasaitasun handiaz erantzun dio Blanca Garciak GEUren jakin-mina asetzeko galdera sortari.

Nola hasi zinen ipuinak idazten?

Nire gurasoek ez zituzten erositako opariak gustuko, nik egindako zer edo zer oparitu behar nien txikitan. Idazteko trebetasuna garatu nuen orduan.

Ipuinak idazteko ohitura duzu, eta poesia?

Egia esan ez dut poesia askorik idatzi. Iaz aurkeztu nuen poesia oso txarra zen. Baina besteei poesiak aurkezten zituztenez, aurten gehiago irakurri eta bi lan aurkeztu ditut.

Zenbat denbora ematen duzu ipuin bat idazten?

Duela gutxi bi ipuin idatzi ditut. Batzuetan, batekin hasi eta aste batzuen buruan berreskuratzen dut. Gustatzen zaidan esaldi bat idazten dut. Hortik aurrera idatzi ahala sortzen dut istorioa, inoiz ez dakit nire ipuinak nola amaituko diren.

Kaxoi batean gordetako ipuin edo poesiarik al duzu?

Kaxoi batean ez, horrelakoak ordenagailuan gordetzen ditut. Amodiozkoak dira gehienak, argitara eman ezinak.

Nork animatu zintuen Urruzuno Literatur Lehiaketan parte hartzera?

Armentia ikastolan izan dudana euskara irakasleak. Aurretik ez nuen lehiaketa ezagutzen. Sariak animatuta aurkeztu nituen lehen lanak.

Nola hartu zenuen sarien albistea?

Ikas-bidaia bueltan amak eman zidan Eusko Jaurlaritzatik heldutako eskutitza, ezin nuen sinetsi.

Zientzia Batxilergoa hasi berri duzu. Letrak alde batera utzi dituzu?

Historia eta horrelakoak ez zaizkit gehiegi gustatzen, astunak iruditzen zaizkit. Baina idaztea desberdina da; idazten ez da ikastolan ikasten.

Nola ikusten duzu zure burua bost urte barru?

Ez dakit. Unibertsitatera joango naiz, baina ez dakit zer ikasiko dudan. Horregatik hasi naiz Zientzietako Batxilergoa egiten, diote-nez ate gehiago irekitzen ditu. Gasteiztik kanpo ikastea gustatuko litzaidake.

Beharrezkoa sentitzen duzu idaztea?

Bai, barruan daukadana askatzeko aukera ematen dit. Egun txarra dudanean edo pozik nagoenean... gustura geratzen naiz zerbait polita idazten dudanean.

Idazle sentitzen zara?

Ez, hobya da niretzat. Liburu bat idaztea oso zaila iruditzen zait ■



di-da

- pelikula bat:
la vida es bella
- liburu bat:
'han goitik itsasoa
ikusten da', julen gabiria
- janari bat:
pasta, pizza...
- zaletasunak:
igeriketa
- gasteizko lekuri ederrena:
florida parkeak xarma
berezia du, baina, alde
zaharra ere oso polita da.
- idazle bat:
harkaitz cano



INSTANTE BATEN BEGIRADA

TESTUA: PATXI URANGA ARGAZKIAK: LANDER GARRO
JENDEA. EGOERA. UNEA. INSTANTEA.
OSAGAI HAUEK GUZTIAK DOTORE
UZTARTU DITU EGILEAK SEGIDAN
DUZUEN IRUDI BILDUMA OSATZEKO
ORDUAN. ELEMENTU HORIEN, ETA
BESTE ZENBAITEN, BATUKETAREN
EMAITZA BAITA ARGAZKIA. BETIRAKO
JASOTA GERATU DEN SEGUNDU
LAURDENA. ZIGARRO KE ARTEAN
GALDUTAKO BEGIRADA, BEGIEKIN
GALDEZKA ARI DIREN HAURRAK,
ENBATARI IHESI DOAZENEN PRESA...
JENDEA, EGOERA, UNEA, INSTANTEA,
FUNTSEAN.





94.000.000

dolar gastatu zituzten Obamak eta McCainek, AEBetako presidentziarako hautagaiek, abuztuan. Hiruna milioi eguneko, bataz beste. Xahutzaileena Obama izan zen. 53,5 milioi dolar gastatu zituen guztira, haietatik 33 iragarkietan eta beste 3 bidaletan. McCain-en aurrekontua "xumeagoa" izan zen: 41 milioi dolar, 23 iragarkietan eta 3 bidaletan). Kanpainak 1.000 milioi dolar inguruko aurrekontua izan du, inoizko handiena: Jet pribatuak, luxuzko hotelak... Kri-siak ez du hautagaiengan eraginik izan!

%53

dira gurasoei bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazte nafar-
rak, Nafarroako Etxebizitzaren Gazteen Behatokiak aurkeztuta-
ko ikerketaren arabera. Neskak dira etxetik alde egiten lehenak;
gurasoenean bizi direnak %46,7 dira eta gizonezkoak, aldiz,
%59,8. Hona beste datu interesgarri batzuk: nafarroan 29 urtez
azpiko 110.000 lagun pasatxo bizi dira (biztanlegoaren %17,9),
eta hamarretik sei lanean ari dira.

38.000 SMS BIDALI ZITUEN

Poloniako Slupsk hiriko autobus gidari batek lanpostua galdu du enpresaren sakeleko telefonoa-
rekin 38.000 sms bidaltzeagatik. Denbora tarte batean, 1.500 sms bidali zituen Leszek Wojcikek, egunero, 30.000 euro inguruko saria banatzen zuen lehiaketa batean parte hartzeko. Parte hartzeko epea amaitu zenean, 27.500 eurokoa zen Wojciken telefonoaren faktura. Enpresak, hilabeteen, langile bakoitzeko baimentzen dituen bost euroak baino zertxobait gehiago.




HAMSTERRA GIDARI

Hamster bat baduzu eta norian bueltaka ikusteak jada aspertu bazaitu, hemen duzu zure maskota torturatze-
ko asmakizun berria: Kamsterrentzako autoa! Hamsterra betiko norian bezala bueltaka arituko da, baina gehitu zaion karrozeriari esker, Skalextric baten antza duen zirkuitu batean ibiliko da. Gainera, autoak, zirkuitutik atera eta etxean zehar ibiltzeko aukera ere ematen du! Kasu honetan autoak airbag-a edo segurtasun-uhala ez izateak kezkatzen gaitu, izan ere, etxeko hormak saihesteko hamsterrak duen abilezia ez dago batere garbi...



gaztezulo flash zure e-mailean doan jaso nahi duzu?



Hamabostean behin
informazioa eskura

Bidali e-maila eta zure izen-abizenak gaztezulo@gaztezulo.com helbidera

15/1999 lege organikoaren arabera, harpidedunak gaztezulo-ri emandako datuak Datuen Babeserako Agentzian inskribaturik dagoen fitxategi automatizatua batera igaroko dira, datuen kudeaketa hobea bermatzeko eta harpidedunak gaztezulo-ren jardura eta zerbitzuak buruzko informazioa jaso dezan. Datu lagatzaileak, ezinahi izango dituzte, zuzenketa, ezetapen eta aurkaritza eskubidea, arauak ezartzen duenari jarraituz, Katalina Elizegi 36, behea, 20009 Donostia hiribidean, bidala helbide elektronikoa honetan: harpidetza@gaztezulo.com

ARITZ ZABALA, GIZON IKUSEZINA AZOKANen egilea:

“Tradizioa duen azoka moderno bat islatu dut”

Aritz Zabala 25 urteko gasteiztarak irabazi du aurten Gerediaga Elkartek Durangoko Azokarako kartela aukeratzeko antolatutako lehiaketa. Gizon Ikusezina Azokan goibururekin aurkeztu duen lanak eskuratu du lehen saria.

t. edurne begiristain

Zabalaren kartelak “bisualki duen inpaktua, daukan mezu zuzena eta sinpletasun plastikoa” aintzat hartu du epaimahaiak hogeita bi lanen artean berea hautatzeko. Durangoko azokaren filosofiarekin bat egiten duen kartela da Zabalarena, eta berak ere aitortzen du “euskara, kultura eta modernotasuna” uztartuta daudela Gizon Ikusezina Azokan lanean.

Publizitate Grafikoa eta Argitalpen diseinu eta ekoizpena ikasketak egin ditu Zabalak. Egun AEK-ko irakaslea da, baina diseinu grafikoarekin lotutako lantxoak ere egiten ditu, bereziki modu digitalean landutakoak. Durangoko Azokako kartel lehiaketaren ira-

bazlea ez ezik, Estatu eta Autonomi Erkidegoetako Eskola Kontseiluen XVIII. topaketa iragartzeko logotipo eta kartel irabazlea ere izan da. Une honetan ez du beste kartel lehiaketa batean aurkezteko asmorik, baina ez du zalantzarik ideia onen bat otutzen baldin bazaio ez dizkiola ateak itxiko aukera horri. Etorkizunean zertara dedikatuko den ez daki oraindik, baina argi dauka bidea ibiliz egiten dela eta dituen ametsak lortzeko bidea irekitzen saiatuko dela, kosta ahala kosta.

Pozik jasotako sariagatik? Lehiaketako irabazlea izatea zer dakar zuretzat?

Lehiaketa hau irabazteak asko poztu nau, gehienbat nire buruari erakutsi diodalako lan txukunak egiteko gai naizela. Gainera Durangoko Azokak Euskal Herria mailan oihartzun handia daukanez hasi berria naitzen ibilbide honetan aurrerapausoa izan daiteke niretzat. Sariarena, berriz, bigarren maila batean geratu da niretzat.

Gizon Ikusezina Azokan kartelaren ideia nola bururatu zitzaizun? Zertan inspiratu zara?

Kartela egitea erabaki nuenean eta beste azoka batzuetakoak begiratzen hasi nintze-

nean, buruari bueltaka bururatu zitzaidan zer edo zer desberdina egitea. Horrela liburu, disko eta maparik ez erabiltzea erabaki nuen. Orduan betaurrekoak eta aurikularrak erabiltzea aukeratu nuen, eta euskal liburu eta disko azoka denez, horri erreferentzia eginez txapela sartu nuen. Hau guztia modu garbi eta moderno batean islatzeko helburuarekin.

Zenbat denbora eman duzu kartela lantzen? Nolakoa izan da prozesua?

Aste Santuan erabaki nuen lehiaketara aurkezte eta orduan hasi nintzen ideari bueltak ematen eta lehenengo bozetoak egiten. Baina maiatzaren erdialdera arte ez nintzen serio jarri kartela egiten. Behin ikerketa fasea eta bozeto fasea amaituta, kartelaren gutxi gorabeherako erretikula zehaztea izan zen egin nuen lehenengo gauza, ondoren tipografia batzuk aukeratu nituen, nire ustez kartelaren ideiarekin bat zetozenak, indartsuak eta modernoak azoka berari erreferentzia eginez, baina biribiltasun apur batekin azoka atzean dauden pertsonak kontutan hartuz. Ondoren hasi nintzen argazki-makina txar batekin probak egiten askotariko betaurreko eta aurikularrei zen-



ensueños loinaz

madre vedruna 18

vitoria-gasteiz 945 13 38 38

**lastairak · somierrak
burkoak · ohe arropak**

bait perspektibatan argazkiak eginez, gero ordenagailuan proba ezberdinak egiteko. Behin elementuen kokapena erabakita, horien aukeraketa etorri zen gero. Estudio batean aukeraketa eginda, kamera on batekin argazkiak atera eta elementuak kokatu nituen, eta ostean, tipografiari eta koloreari azken ikutuak eman nizkion.

Elementu modernoak (aurikularrak) eta tradiziozkoak (txapela) uztartu dituzu kartelean. Nahita ala kasualitatea izan da?

Lehenago esan bezala, behin elementuak kokatua, hauen aukeraketa etorri zen. Kartel moderno bat egin nahi nuen, eta betaurrekoekin kutsu hori ematea izan zen gehien kostatu zitzaidana. Aurrikularrei dagokienez, estilo ezberdinetakoak lortu nituen, baina gero sinpleenak aukeratu nituen, argi izanda beltz kolorekoak izan behar zutela. Eta txapel arrunt bat ere aukeratu nuen, betaurrekoek nahikoa berezitasun ematen diotelako kartelari, eta protagonismoa ez kentzeko. Ateratako emaitzarekin pozik geratu naiz tradizioa duen azoka

2008 **abendua**
5 · 6 · 7 · 8



Durangoko
Euskal 43 Azoka
Liburu · Disko

moderno bat islatzen delako, nahi nuena, hain zuzen.

Kartelaren izenburuarekin pertsonaia literario bati keinu egin diozula esan duzu... Nori?

Izenburuarekin pertsonaia literario bati erre-

ferentzia egitea egokia iruditu zitzaidan, baina egia esan ez nuen asko pentsatu ez norena zen, ez zer zegoen pertsonaia horren atzean. Egia esan, ez nuen burua gehiegi nekatu horretan.

Gizon Ikusezina Azokan... Eta Emakume Ikusezina, non dago?

Gai horrekin ez nuen pentsatu kartelak zeresanik emango zuenik, horregatik nahiko harrituta geratu naiz eta aldeko zein kontrako komentarioak entzun ditut. Izenburua izan da zeresan gehien eman duena eta berauk buruhauste gutxien eman didana. Baina irudiarekin, berriz, nahiko nekatu dut burua eta gauza batzuk azaldu nahiko nituzke. Betaurrekoak neska bati eskatu nizkion, eta hasierako argazkietan neska bat zegoen txapela azpian. Onartzen dut gehiengoek gizon bat ikusiko dutela kartelean, baina ikusezina izanda argi daukat hori ikusten bada, gizartean errotuta dagoen ikuspegi matxistagatik eta irudi batzuek duten genero konnotazioagatik dela; horiek ezabatzea ez legoke batere gaizki■



MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33
Gasteiz



'ZUHAITZ OKERRETAN GORA NOA' RAFA RUEDA

Askeak eta bihurriak dira Rafa Ruedak gustuko dituen zuhaitzak, maite dituen enborrak. Hots, ezarritako bidea aukeratzen ez duten enbor tolestu eta bihurriak. Libre aritu da Mungiako abeslaria bere bakarkako azken disko honetan, hirugarrena, alegia. 'Zuhaitz okerretan gora noa' autoafirmazio diskoa da, 'Kea' eta 'Saredun eskua' lanen ostean.

f. naroa cuesta

a. artxibo

Betidanik bizi izan du musika gertutik, izan ere, itzartzeko Bizenten Carmen opera jartzen zion amak txikitan. Umetan etxerik etxe diskoak eta liburuak saltzen zituen enpresa bati eskaerak botatzen zizkion Ruedak, inor ohartu barik.

90. hamarkadan Euskal Herriko metal-rock talderik txalotuenetarikoa-ren sortzailetako bat izan zen. Pi.L.T. taldeko abeslaria, hain zuzen ere. Musikaren alor denak ezagutzen ditu Rafak dagoeneko. Popa izan du lagun 2003 urtean hasitako bakarkako bidean. Hamar kantuk osatzen dute Rafa Ruedaren azkeneko lana. Artifiziorik gabeko kantu lan-duak eta melodia itsaskorrek sortu ditu entzulea gatibatzeke prest.

Orain arte egindako diskorik landuena dela dio Rafa Ruedak. Asko du esateko eta musika du lanabes. Baxuak eta bateriak osatzen duten oinarriari gailentzen zaio ahotsa. Hamar kantuen letra gehienak Ruedarenak dira; halaber, bere egin ditu Gotzon Barandiaran, Kirmen Uribe, Unai Iturriaga, John Cale eta Edorta Jimenezek ere.

Zer ikus daiteke zuhaitz okarren muintetik?

Zuhaitz okerraren irudi positiboa proposatzen dut. Elkarriketa batean "Zuhaitz okerrak zuzendu daitezke" zioen esaldia irakurri nuen. Nahiko esamolde erabilia da aurretik gaizki egindakoak konpondu daitezkeela adierazteko, baina bidegabekeria iruditzen zitzaidan zuhaitz okerrantzat. Gizarteak desberdina baztertzeko joera du eta nik ezberdina izatearen positibotasuna aldarrikatu nahi nuke. Zuhaitz okertu bat ikusten dudanean edertasuna da burura datorkidan lehenengo gauza eta, ederra den heinean, horretaz gozatzen saiatzen naiz. Beraz, zuhaitz okarren muintetik, edertasunarekin gozatzen duen pertsona baten bizitzaren ikuspegia da agertzen dena.

Bakarkako hirugarren disko honek zer du berezi?

Orain arte egin dudak diskorik landuena da. Urrats handia ekarri du. Denborarekin nire buruarekin nolabaiteko adiskidetzeari lortzekotan nabil eta disko honetan ondo islatzen dela uste dut. Arrazoi filosofikoak aparte, laguntza ederra izan dut oraingoan. Fernando Saunders baxujolearen bandan jotzeko aukera izan nuen iaz eta horrez geroztik bera prest agertu zen disko honetan parte hartzeko. Fernando eta Jonan Ordorikaren bitartez kriston musikari ekipoa lortu dugu diskorako. Bateria jotzailea J.T. Lewis izan da, txeloan Jane Scarpantoni, soinu testuretan Zeljko Macmullan, gitarran Joseba Irazoki eta nahasketetan Tim Lathan. Jende hau, Lou Reed, Rem, Elvis Costello edo Bruce Springsteen eta halako musikariekin ibilitakoak dira. Imaginatu ze esperientzia polita izan den niretzat. Oso aberasgarria izan da.

Lan egiteko orduan lagunez inguratzea duzu gustuko, zer-nolako giroa sortzen da grabazio estudioan?

Kimika ona edozertarako da baliagarria, eta, lagunak inguruan izanda, horretan irabaztea baino ez duzu. Lanarekin gozatze-ko oso garrantzitsuak dira lanean ematen ez dituzun uneak eta lagunak erraztasun handia ematen dute. Gainera, lankideak ondo ezagutzeak helbururako bidea asko errazten du.

Abeslaria, gitarra jotzailea, konpositore eta ekoizle lane-tan proiektu anitzetan ibili zara azkeneko urteotan... zuhaitz okerretan gora eta behera?

Bai, eta asko disfrutatzen gainera. Gaur egun musikatik bizitzeak gauza piloa egitera derrigortzen du, baina nire kasuan zorionekoa naiz nire lana maite dudalako.

Metak, Gaztelupeko Hotsak, Kap... ezin inon geldirik egon?

Etengabe bila dagoen pertsona naiz eta hori ez da oso konpatibela geldirik egotearekin. Disko baterako lan taldea biltzea ez da bat ere

“Nire buruarekin nolabaiteko adiskidetzea lortzekotan nabil, disko honetan ondo islatzen da”



erraza eta bilaketa horretan bidelagun ezberdinak izan ditut orain arte. Diskogintzan dagoen krisiarekin gorabehera handiak egon dira diskoetxetan eta batzuetan batetik bestera ibiltzea baino ez dago. Oraingoan oso gustura nago eta espero dut gauzak ondo ateratzea lantalde honekin, inplikazio pertsonala handia baita.

GEU elkarteak antolatzen duen Kultur Errotan aurkeztuko duzu zure azken lana, Parral tabernan hain zuzen. Zergatik Gasteizen?

Disko berriko kantak zuzenean joko ditugun lehen aldia izango da eta lagun arteko giroa nahi nuen estreinurako. Parral taberna horretarako egokia da. Gainera, han egin nuen kontzertuaren oso oroitzapen ona daukat.

Nola definituko zenuke musikarekin duzun harremana?

Uff... Musika nire bizitzaren alderdirik garrantzitsuenetakoa da. Bakoitzak badi-tu bere motibazioak egunerokoari kemenez aurre egiteko eta niri musikak horretarako sekulako indarra ematen dit.

Nola ikusten duzu euskal musikaren etorkizuna?

Oro har, sorkuntza mailan oso gauza interesgarriak egiten direla pentsatzen dut baina dena delakoagatik zaila egiten zaigu publikoarengana heltzea. Publikoa eta sortzailearen arteko erlazioa estuago izatea lortuko bagenu asko irabaziko genuke. Komunikazio falta dagoela uste dut, baina hori aldatzekotan gabiltza.

“Okerra” zarela esango zenuke? Eta zer da, berez, okerra izatea?

Guztiz identifikatzen naiz okerraren ideia bihurriarekin, ez ohiko norabidea hartzen duenaren arriskuarekin. Beste zentzu batean ere, okerrak garela onartzea lan nekeza da baina behin onartuta gauza asko argitu daitezke bideani ■

“Bateria jotzailea J.T. Lewis izan da, txeloan Jane Scarpantoni, soinu testuretan Zeljko Macmullan, gitarran Joseba Irazoki eta nahasketetan Tim Lathan. Jende hau, Lou Reed, Rem, Elvis Costello edo Bruce Springsteen eta halako musikariekin ibilitakoak dira. Imajinatu ze esperientzia polita izan den niretzat”

Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA OIARTZUN

Euskara, gure lurralde libre bakarra

araba@aralar.net • Kanpokale berria 4, behea • 945252631



PASARAL
TABERNA

Egurditan, astaleneetik ostiralera

JANTOKI
BEGETARIANO

SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 68 33

ZURE HARATEGIAK



AIZPEOLEA

harategia
arraindegia
frutategia
okindegia

Jose Luis
GARMENDIA
Harategia-urdaitegia

Florida Azoka 2 eta 3 TI. 945 13 24 48

Andaluzia kalea 13 TI. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

25 **ARTEPAN**
1983-2008 bitartea - gastronomia

Jesus Guridi, 2
TI. 945 27 88 88 - 28 72 37
El Boulevard Merkatal Zentroa - TI.
945 068 888
01005 GASTEIZ

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korrieria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztekoentzat

Uruguai kalea, 9 - TI: 945 24 49 65
Abendaño kalea, 48 - TI: 945 22 34 33

Euskadik
behar zaitu



EAJ
PNV



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz kalea, 1 TI. 945 213 390 - Faxa: 945 213 390
01012 GASTEIZ
e-posta: errotadental@euskalnet.net

bar restaurante
albéniz

Errege atea, 9 - GASTEIZ
TI: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2
TI: 945 13 27 20

Confecciones
Pinedo

Jantziak
San Antonio, 11 - TI. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 - TI. 945 15 53 39

HEGOALDE
euskaltegia

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

ROBER GUTIERREZ,
ZIURTAGIRIAREN ELKARTEKO ZUZENDARIA:

“Datozen lau urteetan 1.500 Ziurtagiri berri ematea aurrikusten dugu”

Orain dela zortzi urte sortu zen Bai Euskarari Ziurtagiria lan munduaren euskalduntzean eragiteko. Dagoeneko 1.563 enpresa, saltoki eta era guztietako entitatek daukate Ziurtagiria eta guztira 30.000 lagun baino gehiago dira Bai Euskarari Ziurtagiriaren eraginpean lanean ari direnak. Duela urtebete Ziurtagiriaren Elkartea sortu zuten Bai Euskarari Ziurtagiria hobeto kudeatzeko eta Rober Gutierrez Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariaren esanetan, urte emankorra izan da aurtengoa: “datozen lau urteetarako erronka nagusiak zehaztu ditugu”.



t. erredakzioa **a.** edorta sanz

Orain dela urtebete sortu zenuten Ziurtagiriaren Elkartea Bai Euskarari Ziurtagiria kudeatzeko. Aurrez Kontseiluak egiten zuen lan hori. Zergatik erabaki zenuten Ziurtagiriaren Elkartea sortzea?

Bai Euskarari Ziurtagiria lan munduaren euskalduntzean eragiteko proiektu estrategikoa denez, ikusi genuen beste mota bateko enti-

tateak ere inplikatzeko beharrezkoa zela proiektu hau garatzeko. Horregatik sortu genuen Ziurtagiriaren Elkartea eta hala, proiektu zabalagoa, konpartitua eta eraginkorragoa jarri zen martxan. Orain, Ziurtagiria daukaten entitate guztiek, parte hartzen dute Bai Euskarari Ziurtagiriaren gestioan. Ziurtagiriaren Elkartek hiru bazkide mota ditu: babesleak, erabiltzaileak eta laguntzaileak; Ziurtagiria dutenak Elkartearen bazkide erabiltzaileak dira.

ziurtagiriarenelkartea



www.baieuskarari.org 902 430026

Urte honetan zein eginkizun nagusi izan ditu Ziurtagiriaren Elkartek? Urte honen nolako balorazioa egin duzue?

Oso urte oparoa izan da eta beraz, gure balorazioa ona da. Datozen lau urteetarako oinarriak finkatzen aritu gara. Ziurtagiriaren diagnostikoa egin dugu eta diagnostiko horretan oinarrituta datozen urteetarako erronka nagusiak zehaztu ditugu. Horretarako datozen lau urteetarako estrategia plana diseinatu dugu.

Eta zein dira datozen urteetarako dituzuen erronka nagusiak?

2012. urterako lortu nahi ditugun helburuak hiru ardatz nagusitan oinarritzen dira: Bai Euskarari Ziurtagiriaren hedapena areagotzea; Euskal Herrian alor sozioekonomikoa, euskararen normalizazioan erreferente izatea eta pertsonen gogobetetze maila ase-tzea. Zentzu horretan datozen lau urteetan Ziurtagiria duten entitate kopurua bikoizteko lan egingo dugu.

Eta zer egingo duzue horretarako?

Hori lortuko da, industria poligono, teknologia nahiz kultura parke eta antzekoetan hedatuz, eta horretarako plan bat ari gara diseinatzen. Bestalde, gainera, gure helburua gaur egungo bazkideak mantentzea da, hau da, Ziurtagiria duten entitateen berri-tatze indizea altua izatea.

Ziurtagiriaren Elkartearen erronkez ari zara. Baina Ziurtagiriak berak dagoene-

ko 8 urteko ibilbidea egin du.

Bai hala da. Ibilbide luze eta oparoa egin du Bai Euskarari Ziurtagiriak arlo sozio-eko-nomikoaren euskalduntzean eragiten, hau da, euskararen aldeko neurri zehatzak hartzen dituzten entitateak identifikatu eta kredita-tzen.

Nola definituko zenuke Bai Euskarari Ziurtagiria?

Hitz gutxitan esango nuke arlo sozio-eko-nomikoaren euskalduntzean eragiteko proiektu estrategikoa dela: profesionala, independentea, gertukoa eta euskararen normalizazioa helburu duena.

Lehen esan duzu, Ziurtagiriaren Elkartearen helburua euskararen nor-malizazioa dela. Zehaztuko zenuke?

Helburu nagusia da euskararen normaliza-zioa. Bai Euskarari Ziurtagiria normalizazio horretan eragiteko proiektu bat da. Hori da helburu nagusia baina baditu beste bi hel-buru ere: batetik, euskararen normalizazio-rako urratsak ematen dituzten entitateak identifikatzea eta zein mailatan dauden esa-tea; eta bestetik, entitate horiek saritzea.

Eta zer ematen die entitate horiei Ziurtagiriak?

Ziurtagiriak balio erantsia ematen die, eta segurtasuna. Ziurtagiriak irudi bat eskain-tzen du eta gizartearen aurrean kreditatzen duen erreminta da. Gainera, Ziurtagiriak ziurtatzen du entitate horiek maila jakin



batean daudela eta hurrengo maila lortzeko zer egin behar duten azaltzen die. Alde horretatik, metodologia bat eskaintzen du. Azken batean, Kalitatea eskaintzen die eta beren produktu eta zerbitzuei balioa erans-tean, merkatuaren aurrean lehiakorrago egi-ten dituelako nahi izan dute Bai Euskarari Ziurtagiria. Oraintsu martxan jarri dugun Ziurtagiriaren komunikazio kanpainan age-ran geratu da.

Zein urrats jarraitu behar dira Ziurtagiria eskuratzeko?

Lehenik eta behin entitate horren hizkuntza

Iturrieta



bertako sagardoa



OSTEGUNETIK HURRERA
IREKITA.
Sainontzeko egunak,
enkarguz.

Sagardotegia



ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) TL.: 945 445 385 - 685721593



ziurtagiriaren elkartea

Enpresa, saltoki eta era guztietako entitateetan euskarak duen egoerari begiratu maila bat edo beste lortu dezakete. 1563 entitate horiek zein mailatan daude?

166k "zerbitzua eta lana euskaraz" maila eskuratu dute, 514k "zerbitzua euskaraz" eta 883 "bidean" mailan daude. Bai Euskarari Ziurtagiria daukaten entitateak zein sektoreri dagozkion begiratzuz berriz, % 13, enpresa industrialak dira; % 37, merkataritza eta ostalaritza sailekoak dira; % 19, Kultura, gizarte mugimendu eta kirolaren sailari dagozkio; % 7, hezkuntzari; % 20, zerbitzuen eta finantzen mundukoak dira; % 1, administrazioa eta alderdiak dira; eta azkenik, % 2, lehen sektoreari dagozkionak dira.

Zertan nabaritzen da Ziurtagiriaren eragina?

Kopurua garrantzitsua da. Baina are inportanteagoa da horren atzetik dagoen lana, Ziurtagiria duten entitateek urtez urte ematen dituzten urratsak, lortzen dituzten helburuak eta egunerokoan eragiten dutena. Gainera, entitate hauek lanean ari dira: euskara ikasten, errotuluak euskaratzen, webguneetan euskara erabiltzen, bezeroak euskaraz hartzen, komunikazio publikoetan euskaraz hitz egiten, euskaraz dauden programa informatikoak erabiltzen, hornitzailei euskaraz lan egiteko eskatzen, produktuen etiketak euskaratzen... ■

egoera aztertzen dugu. Horretarako bost parametro hartzen ditugu kontuan: langileen hizkuntza egoera, irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia, barne harremanak, kanpo harremanak eta programa informatikoak. Bost atal hauetan jasotzen diren elementu guztien azterketa egiten dugu.

Ondoren maila erabakitzen al duzue?

Bai, hala da. Ziurtagiriak hiru maila ditu: "Zerbitzua eta lana euskaraz" maila gorena, "zerbitzua euskaraz" eta "bidean". Maila bakoitza lortzeko irizpide batzuk finkatu dira eta horiek bete behar dira Ziurtagiria

eskuratu aurretik. Lortzen den maila irizpide horien arabera izango da.

Zenbat enpresak daukate Bai Euskarari Ziurtagiria?


Dagoeneko Euskal Herri osoko 1.500 enpresa, saltoki eta era guztietako entitate baino gehiagok eskuratu dute Ziurtagiria. Zehatz-mehatz esanda, 1.563 dira uneotan Ziurtagiria dutenak eta guztira 30.000 lagun baino gehiago dira Bai Euskarari Ziurtagiriaren eraginpean lanean ari direnak. 2000. urtean sortu zenetik etengabe egin du gora.



EGUR

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goian Industrialdea
Tl/Fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)



**eusko
alkartasuna**

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



**Gazte
Abertzaleak**

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

proposamenak

cd

'herriaren oihua'

hesian • gor-08/urria • www.gordiscos.com



zortzi musikarik osatutako talde gaztea da. nafarroako sakanatik datoz, etxarri-aranaztik, hain zuzen. euren ahoz-ahozko arrakastak euskal herri osoko kontzertu txiki andana batean egotera eraman ditu. gor diskak-en aurtengo 'gorakada 10' diskoan 'hau dena aldatzera doa' abestia kaleratu ostean, urrian taldeak bere lehenengo cda editatu du. lanak hamahiru abesti ditu eta alberto porresek grabatu ditu iruñeko k estudioetan. euren estilo anitzaren barnean punk azkarra, haizeak, melodia lirikoak eta mozqueta kañeroenak nahastean dira, honela, talde berrien egarriak dagoen belaunaldi berri baten atentzioa euren gana bideratu dutelarik.

liburua

'ispiluaren kalteak'

edorta jimenez • elkar-08/urria • www.elkarlanean.com



plazer beti iheskorren bilaketa, heriotzaren itzal nahi baino luzeagoa: horra gizaki guztion bizitzan agertzen diren printzipio bi, ipuin hauetan ere —leku eta garai guztiz zehatzetan kokaturik— beti presente daudenak.

marjinalitatearen ertzean bizi diren litxareroak, ijitoak eta drogaren salerosketan endredaturiko jendea dabil orriotan barrena; baina baita dirutxoak egin osteko bizimodu erosoaan kulunkatzen diren gizon-emakumeak ere, behialako gaztaro menturazalea gogoan.

zortzi istorio idatzi ditu edorta jimenezek, burdinaren zorrotza eta uherraren edertasun zakarra elkartzan dituztenak, azala ebaki ez ezik mamira ere iristen direnak, gure gogoan habia egiteko, luzaroan.

bideoklipa

'asthmatic lion sound systema'

fermin muguruza
08 urriak 31



1. bideoklipa: balazalak
2. bideoklipa: shoot the singer

www.muguruza.fm

literatura dosi txikitan

ALZHEIMER HISTORIKOA



t. mikel ayerbe

Duela gutxi, euskara irakasle dabilen lagun batek aholku bat eskatu zidan. Nonbait, ikasle bati nobela historikoak gustatu eta euskarazko nobela historiko bat gomendatzeko eskatu zidan. Urriak 12 zen, eta galderak itzalita bezain txoriontsu harrapatu baninduen ere, gogoan nuen historia ardatz duten euskarazko nobelei buruz unibertsitate garaian eginiko lan bat. Ordenagailua piztu, dokumentua ireki eta banan-banan, lan hartan aipatzen nituen liburu-zen zerrenda pasa nion lagunari.


Une hartan, ni neu Jokin Muñozen 'Antzararen bidea' berrirakurtzen ari nintzen, urriko azken ostegunean Gasteizko Irakurle Klubean liburu hori genuelako hizpide. Liburu hori nobela historikotzat ere hartu daiteke, idazlearen intentzio eta helburuetako bat literaturaren bidez historia hobeki ulertzeko ñabardurak eskaintzea izan den neurrian. Izan ere, Muñozek berak aipatu bezala, "fikzioak ñabardurak gehitzen dizkio kronika historiko eta periodistikoari (...). Historialariak debekatuta dauka imajinatzea. Nobelagileak, aldiz, datu historikoetatik edaten du, eta gero imajinazioa erabiltzen du historiak utzitako hutsuneak betetzeko". Arrazoi honengatik, agian, ugaritu da gurean (eta ez hain gurean) memoria historikoaren eta memoria kolektiboaren gaia liburu-erretan jorratzeko beharra. Bestalde, denok ukitu gaitu frankismoko eta 1936ko gerrako desagertuen auzia ikertzeko erabakiak sortu duen oihartzunak ere.

Hutsuneak nolabait bete beharra dagoelako. Ahantzurak zulo asko baititu eta sarritan irakurri dudana esaldia hona ekarri, bizidun guztion patua "memoria apur bat eta amnesia dosi handitan" uztartzea delako.

Eta eskerrak liburu batzuk behintzat, alzheimer historikoa apur bat gaingitzen laguntzen diguten... ■

EUSKAL KANTU TXAPELKETA 08

LUTXIANOTARRAK TALDEA & DEIANE ABAJOS BAKARLARIA



MADALEN ZABALA,
17 URTE

MIKEL FERNANDEZ DE AÑASTU,
14 URTE

DEIANE ABAJOS ONAINDIA,
20 URTE

t. ane pedruzo a. edorta sanz & artxibo



KONTU KONTARI? ZERGATIK EZ KANTARI!

Madalen, Mikel, Deiane... Izenak dira, pertsonen izenak... Baina pertsona guztien atzetik, edo aurretik, istorioak daude, oso bestelako istorioak, eta Madalen, Mikel eta Deianek pentagrama batean idatz daitekeen sinfonia dute plazaratzeko. Arrazoi anitzengatik hirurak oso antzekoak direla esan daiteke, arabarrak dira, gazteak, ipurtarinak... baina batez ere musikarengatik sentitzen duten grina da batzen dituen eta euren bideak kantuari esker elkarren artean gurutzatu dira. Izan ere, hirurek hartu zuten parte aurtengo Euskal Kantu Txapelketan, baita bi txapel irabazi ere, arabarron harrotasunerako; Deianek bakarkako modalitatean lortu zuen saria eta Madalen eta Mikelek Lutxianotarrak taldeko kide izanik, taldekako eta "a capella" sariak bereganatu zituzten.

Txapelketaren eskala, do re mi...

Euskal Kantu Txapelketa lau urtetik behin ospatzen den ekimena da. Bere jatorria ezagutzeko, begirada Euskal Kantuzaleen elkarterantz zuzendu beharra dago. Hau 1985 urtean jaio zen Iparraldean eta orduan ospatu zuten euren historiako lehen kantutxapelketa Iparralde mailan. Bi urte beranduago Hegoaldeko herriak ekimenara batu eta haurren lehen euskal lehiaketa ospatu zen. Ordutik haur kantari lehiaketa bi urtero antolatzen da. Euskal Kantu Txapelketa ordea, 2000 urtean abiarazi zuten lehen aldiz eta aurtengoa hirugarrena izan dugu. Euskal kantagintza zabaldu eta erakustarazi, kantatzeko zaletasuna piztu eta kantari berriak ezagutaraztea dira txapelketa honen xedeak, eta beren izenean diskorik argitaratu ez duten kantari amateurrek har dezakete parte, banaka, binaka edo taldeka.

Aurtengo edizioan, eskualde mailan ospatutako finalerdien ostean, hogeita zazpi partaide heldu ziren finalera, Nafarroa Beheratik hiru eta gainontzeko probintzia bakoitzetik launa. Arabatik bi talde eta bi bakarlarik izan ziren eszenatokira igo zirenak euren abilezia erakustera eta horien artean pixkanaka ezagunak egiten ari zaizkigun izenen atzetik, edo aurretik, dauden pertsonak, Deiane, Madalen eta Mikel.



LUTXIANOTARRAK, PAVAROTTIREN EUSKAL ONDAREA

Lutxianotarrak taldeak aurtengo 20. urte bete dituen Crescendo abesbatza gasteiztarra du jatorri. Bertan 12 eta 25 urte bitarteko 60 bat gazte aritzen dira kantari. Egia esan, abesbatza honen curriculum ez da makala, izan ere, hainbat txapelketatan parte hartu izan dute, betiere maila nabarmena erakutsiz eta aurtengo adibidez 7. gelditu dira mundu mailako olinpiada koraletan. Abesbatzaren arrakastak baina, badauka bere azalpena, izan ere, Madalenen ustez "koruaren sekretua gure artean oso ondo moldatzen garelako da". Hain zuzen ere, harreman estu horri esker jaio ziren Lutxianotarrak.

Dena, Josu Alberdik idatzitako Mirrixkatu izeneko partitura kontzertu batean kantatu ostean hasi zen, ondoren egin zuten afarian. Bapo jaten eta edaten zeudelarik, norbait Euskal Kantu Txapelketa parte hartzea otu zitzaion. Ideiak harrera ona izan zuen eta abesbatzako 11 gazte txapelketa parte hartzera animatu ziren, horien artean Mikel eta Madalen. Taldearen izena baino ez zitzaion falta, eta eskainitako kontzertua gogoan, kantatutako obran Lutxiano barraskiloa izeneko pertsonaia bat zegoela gogoratu zuten. Izena, beraz, bazeukaten, ez baina txapelketa prestatzeko denbora askorik, izan ere, hilabete eskasa gelditzen zen finalerdiak hasteko. Hori dela eta, hasiera batean 'Maritxu nora zoaz' abestu nahi bazuten ere, dagoeneko entseiatu zuten kantutxo bat aukeratu zuten: Tomas Garbizuren 'Zezenak dio'. Ia oihartu gabe, ekainaren 15a heldu zen, eta Bilboko Arriaga antzokian ikusi zuten euren burua, txapelketaren finalean. Bertan baserriarrez jantzita agertu ziren ikuslearen aurrean eta abesteaz gain, Madalenek panderoa jo eta irrintzi batzuk bota zituen, eta taldeko Titxu eta Jon Anderrek fandango bat dantzatu zuten, agerraldiari kolore biziago bat eskainiz. "Abestia bagenekien, erraza izan zen". Honela mintzatzen da Mikel lortutakoari pisua kendu nahian, baina argi dago meritua aitortzeko dela! Egunaren bukaeran beraz, talderik onenaren saria eta a capella sari bereziarekin itzuli ziren etxera. Gaur egun, Madalenek gordetzen du data hura inoiz ahaztu ez dezaten lortu zuten orogarri kuttuna, txapela. Zozketa egin eta berari tokatu zitzaion eta harrotasunez erakusten du.

Familia kantaria dauka Deianek. Bere ama sopranoa da eta aitona ere betidanik egon da musikaren munduan murgildurik. Aurreikusi zitekeen moduan, Deianek bere senideen pausoak jarraitu ditu. Txikitan hasi zen kantuan eta pianoa jotzen eta ordutik hainbat musika eskolatatik pasa da. Gainera, kontzertuak eskaintzera nahiko ohitua dago talde anitzetan kantatu baitu. Esaten duenez, etorkizunean musika edo antzerkiarekin zerikusia duen lanen batean jardun nahiko luke baina momentuz, Zuzenbide ekonomikoa ikasten ari da eta aukera horren arrazoiaz galdetzeran bere erantzuna trinkoa da, “legea ezagutzea eta eskura izatea beti da ona”, ez da huskeriatan ibiltzen den horietakoa!

Dagoeneko bi aldiz hartu du parte Euskal Kantu Txapelketan eta esaten denaren kontra, berak ez du hirugarren saialdirik behar izan garaile irfeteke. Dena den, txiripaz aurkeztu zela aitortzen du, unibertsitateko azterketak gainean baitzituen txapelketara joatea proposatu ziotenean. Azkenean animatu eta denbora gutxi bazuen ere, abesti bat konposatzea erabaki zuen eta bi asteren buruan ‘Itzalez zeure arima estaltzen’ balada prest zeukan. Gauak izan zituen lagun konposaketa lanetarako: “egunaren bukaerak gehiago inspiratzen nau, bohemioagoa da”.

Txapelketan, pianoarekin batera euskal munduari kantatu zion Deianek, euskal historiari gainbegiratu bat eginez eta etorkizun itxaropentsu bat aurkeztuz. Behin kantatu eta gero, eta irabazteko aukerarik ez zuela buruan sartuta, aldageletara joan, zeraman soinekoa erantzi eta kaleko arropa jarri zuen. Ondoren, sari banaketa egiten zuten bitartean, hurrengo egunean zeukan azterketarako ikasten hasi zen. Bat-batean, bere izena entzun eta azkar batean soinekoa jarri behar izan zuen eta arrapaladan eszenatoki-rantz abiatu. “Oso txalotua izan nintzen, izan ere, iristea apurtxo bat kostatu zitzaidan”, gogoratzen du Deianek maitekiro. Bakarlari moduan lehen saria lortu zuen.

DEIANE ABAJOS ONAINDIA:

“Jazz eta soul-a euskaraz kantatzea gustatuko litzaidake”

Arabako abeslari harrobia, eredugarria!

Eta hemendik aurrera, zer? Horrelako galderak suerta dakizkiguke Deiane, Mikel eta Madalen hobeto ezagutu ondoren. Eurek argi dute. Musikaren eremuan profesionalki aritzea zaila dela dakiten arren, hori lortzeko edozein aukera probetxatzeko prest daude. “Hor gaude eta zerbait aterako balitz apuntatuko ginateke”, horra hor Mikelen esanak. “Edozertara zabalik gaude”, Madalenenak. Deianeren hitzak ere ildo beretsutik doaz, “desesperaturik nago kantatzeko talde bat aurkitu nahian”.

Noizean behin ametsak errealtate bihurtzen dira eta Mikel, Deiane eta Madalenen ametsak esnatzen hasiak dira dagoeneko... Zorte on!



MARTIN BAÑEZEN ERESIA



maturana herrikoa omen zen santxa otsoa de ozaeta

t/a.: kike fdz de pinedo

Aurrekoan Zuiako Markinan gertatutako borroka kontatzen zuen *Errodrigo Zaratekoaren kantua* ekarri genuen orri hauetara. Gaurkoan Arabarekin zerikusia duen Erdi Aroko beste euskarazko kantu bat dakarkizuegu, *Martin Bañezen eresia* izenekoa, hain zuzen. Eresia (hil-kantua) hau Santxa Otsoa de Ozaetak bota omen zuen eraildako bere senarra Martin Bañez de Artazubiagaren hiletetan. Honelakoetan, negar eta oihu lazgarrien artean ohikoak omen ziren eresiak edo hil-bertsuak botatzea. Gertaera tragiko hau Ahaide Nagusien artean XIII. eta XV. mendeen bitartean ereindako gorroto eta ezinikusietan du sorburu. Jakina denez, Nafarroan agramondar eta beamondarrekin gertatu bezala, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko bazter guztietara zabalduta zegoen ganboar eta oinaztarren arteko odol arrastoa. Borroka hauen atzean

gainbehera zetorren jauntxoek pisu politiko eta ekonomikoa zegoen.

Arrasateko erreketak

Botere-lehia zenbaitzuetan hiribilduetara zabaldu zen. Gasteizen, adibidez, Aiala (oinaztarrak) eta Callejakoek (ganboarrak) osatzen zituzten bi bandoak. Arrasaten, modu bertsuan, Bañeztarrek (ganboarrak) eta Guraiarrek (oinaztarrak) alkateak eta aginte organoak banatzen zituzten. Hiribildu honetan bien arteko harremanak gaiztotuz joan ziren eta ondorioz 1448 urtean, ganboarrak, Oñatiko Pero Velez de Gebara buru, Arrasatez jabetzen dira indarrez. Berria jakin bezain pronto, Aramaioko jauntxo oinaztarra, Gomez Gonzalez de Butron, 600 soldadu Arrasatera zuzendu eta haren jabe bihurtzen da. Ganboarrek setioa ezarri eta hiria ezin berreskuratuta, su eman zioten lau aldeetatik. Izua

erdian Glz. de Butron, bere seme Juanikote, iloba eta beste hainbat bandokide ihes egitera zihoazela hil egin zituzten. Gertaerok ahaide nagusien arteko gorroto eta indarkeriaren erakusle nabarmenatarikoa dira, eta *Arrasateko erreket*a deituriko poema bikoitzaren bidez herriaren gogoan geratu zen.

Martin Bañez de Artazubiagaren hilketa

Gipuzkoako agintariek, nonbait errotik moztu nahi izan zuten etengabeko odol isuria. Hartara, errudunak urkamendira edo bizirik erretzera zigortu zituzten. Ez zuten, baina, inor harrapatu sententzia ezerezean geldituz. Aramaioko jauntxo berriak, Gomezen semeak, bere Barajuengo gotorlekutik mendekua nahi eta 16 urte beranduago 5 aramaioar bidaliko ditu Martin Bañez ganboarra hil zezaten. Arrasate ondoko Ibarrethan, bere burdinolan zegoela aurkitu eta akatuko dute gupidarik gabe. Berriz ere odolaren legea.

Santxa Otsoa de Ozaeta

Esteban de Garibai historialariak gertaera jaso eta hau diosku: *"su viuda, hizo gran llanto, muy usado en este siglo, por la desgraciada muerte de Martin Bãñez su marido, y soledad suya y de sus hijos, y cantó muchas endechas, que en vascuence se llaman eresiyak y entre ellas se conservan hoy día algunas en memoria de las gentes, en especial éstas:"*

*Oñetaco lurrau jabilt icara
Lau araguioe vere an verala
Martin Bañes Ybarretan il dala
Artuco dot escu batean guecia
Bestean çuci yraxegua
Erreco dot Aramayo guztia"*

Poemaren esanahia ondokoa litzateke:

Oinetako lur hau dabilkit dardarka, nire gorputz osoa bezala, Martin Babes Ibarretan hil dala, hartuko dot esku batean gezia, bestean suzi piztua, erreko dot Aramaio guztia.

Hasierako zatian oinazea eta bigarrean mendeku-gosea. Lehen bi bertsoak *Aramaioko kantuan* ere agertzen dira orduko ahozko formula ezaguna omen zelako. Poema ahozko tradizioan kokatu behar dugu eta agian bertsio hau poema luzeago baten zatia baino ez da. Santxak ez zuen Aramaio erre, baina hiltzailei ezarritako zigorra gauzatzea lortu zuen, urte batzuk beranduxeago bost aramaiorrei burua moztu baitzieten. Aramaio eta ingurua (Legutio, Zuia, Otxandio, Debarrena) banderizoekin lotu daiteke XV. mendean. Santxa ere Arrasaten bizi zen baina Oihane Perea bertsolariari esker jakin dugunez, 1897an Ricardo Becerro de Bengoak eresia hau aipatzeaz gain, Santxa Arabako Maturana herrikoa eta Mendixurko jauregiko andrea zela idatzita utzi zuen, baita Ozetako Mostrina jauregiko oinordeko aberatsa zela ere.



hemen, arrasate ondoko ibarretan, hil zituzten martin bañez eta juan ibañez de barrutia



m. iñigo sarasola

zutabea

t. erlantz urtasun antzano.
historialaria

1457ko azaroak 21

Historia korapilatsua da hagitz. Euskal historia korapilatsuagoa dela ezin ukatu. Arabar historia, balitz, balego, bagenu, zinez ezin korapilatsuagoa...



Adibide bat, duela 551 urtekoa. Honela dio erdarazko testu jurasiko baten hasierak: "*A instancia de Vitoria, Treviño y Salvatierra fue creada una hermandad estrictamente alavesa, cuyas ordenanzas fueron aprobadas en Valladolid el 6 de febrero de 1417, tras introducir algunas modificaciones en la propuesta que habían presentado las tres villas*". Lehenik eta behin, Uda-Trebiñu bere baitan zela dio. Bertzetik, ai ene, beldur naiz, gaztelarrek eman zuten oniritzia, subiranotasuna Valladoliden baitzen, ez Gasteizen, eta gaztelar jauntxoek aprobatu zuten, bai, baina "*tras introducir algunas modificaciones*". Subiranotasuna zakarrontzian. Arabar Errioxa, bere aldetik, Nafarroa zen oraindik, hots, independentea, subiranoa.

Are gehiago, "*para bien gobernar e guardar la dicha Hermandad era necesario que se integrasen en la misma La Puebla de Arganzón, Nanclares de la Oca, Ollávarre, la hermandad de Ariñez y de Cigoitia, Zuya, Ubarrundia, Villarreal de Álava, Eguilaz, Barrundia, Gamboa, Iruraz, Araya, Araya, Contrasta, Peñacerrada y los otros logares que son en comedio dellos*". Hondarrean, "*la hermandad tenía también sus juntas Generales, a las que acudían los alcaldes, comisarios e procuradores de las çibdades, villas e logares de la Hermandad de Álava, según consta en las que tuvieron lugar el 21 de noviembre de 1457*".

Baina eta hemen, normalean kondatzen ez dena zera da, urte beretsuetan Arabako jende xehea matxinatu zela. Eta gutiago kondatzen dena da jauntxoek egin zutena: "*los sublevados comenzaron a derribar algunas casas de nobles, por ejemplo en una villa llamada Salvatierra. Al frente de numerosas huestes, los nobles realizaron una dura represión: se mató y prendió muchos dellos, e derribales las casas e hízoles tan grandes daños, que ovieron bien la paga de su merescimiento; e así quedaron abatidos, que dende adelante no pudieron nada*" ■




geusex@emaize.com

Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik ala jakin-minik al duzu?

Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.

Anima zaitetz eta bidali hona zure galderak:



geusex@emaize.com.

Emaize Sexologia Zentroko profesionalek erantzungo dizute.

emaize sexologia zentroa

gizon eta emakumeentzako arreta

bueno monreal I-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com



Aupa, amak 67 urte ditu eta alarguna da. Azkenaldian gizonekiko desioa sentitzen duela dio eta ez da ondo sentitzen, zaharregia dela uste du. Nik ez dut hala uste, baina...

Emakumeek eta adinduek desira gutxiago dutela ikasi dugu eta normala da zure amak bere desirak onartzeko zailtasunak izatea ezaugarri bihurtu delako. Zientziak eta esperientziak, aldiz, desioek zerikusi gutxi dutela adina edo sexuarekin erakutsi digute. Sexualitatea jaiotzatik hil arte irauten du eta desirak bizirik gaudela islatzen dute, ez da gazteen kontua, pertsonen kontua baizik: gizonek eta emakumeek, ume, gazte, heldu zein adinduek desiatzen dugu eta desirak onartzea, aske eta zoriontsu bizi gaitezen, ezinbestekoa da.

32 urteko neska naiz, urtetako bikotea dut eta ingurune guztiak umeak noiz izango ditugun galdezka ari dira, adina pasako zaidala..., ama izatea beharrezkoa balitz bezala. Ez dugu argi umerik nahi dugun. Zer egin dezakegu?

Iraganean emakumeen funtzio nagusia umeak izatea zen, baina gizarte mailan aldaketa asko eman da eta erabaki dezakegu. Umeak gero eta beranduago ditugu, horrek ordea ez du esan nahi 30 urte betetzean egin behar dugunik, ezta ondoren egin beharko dugunik ere. Batzuentzat arraroa da umerik izan nahi ez duen bikotea, baina erabakia zuena da.

Besteen galderen aurrean "umerik izan nahi dugun argi ez dugu" esatean, segituan zergatik galdetzen hasiko dira. "Momentuz ez" erantzun gero, agian lasaiago gertuko dira eta galdera gutxiago egingo dituzte. Pazientzia hartzea eta jaramonik ez egitea besterik ez dugu! Erabakia zuena da.



errezeta

diocesanas-mendizorroztako
ostalaritza eskola

FRIJITUTAKO KREMA ARRUNTA (7-8 ANOA)



Osagaiak:

- Litro bat esne
- 100 gramo arto fekula
- 200 gramo azukre
- 6 arrautza
- kanela-zotz bat

Elaborazio prozesua:

Lehenik eta behin, azukrea eta artirina eltze batean nahasten dira eta ondoren olio pixka bat botatzen da. Esnea irakiten ipintzen da kanelarekin batera eta gero arrautza ahia azukrearekin eta artirinarekin nahasten da. Kanela kendu egiten da hautsi ez dadin eta egosten uzten da gutxi gorabehera bost minutuz (hagaxka batekin mugituz). Ezinbestekoa da hagaxka batekin denbora guztian mugitzen ibiltzea, bestela itsasi egiten baita erraztasun handiz.

Krema eginda dagoenean plaka handi batean zabaltzen da eta hozten uzten da, gutxienez egun batez, kamara batean. Hoztu denean, lauki txikietan zatitzen da eta irinarekin lehenik eta arrautza irabiatuarekin ondoren nahaskiltzen da.

Ekilore olio askorekin frijitzen da. Paper xurgatzailean uzten da eta azkenik azukre eta kanela nahastuarekin hautsezatzen da. Berotuta edo hoztuta zerbitzatu daiteke ■






CLINICAS **VITAL DENT** ONENAK ODONTOLOGIAN

TRATAMENDU GUZTIAK 60 EUROTIK AURRERA HILEAN

INPLANTOLOGIA:

TEKNOLOGIA BERRIENA

- FUNTZIONALITASUN ETA ESTETIKA BIKAINAK
- GAIK, TITANIO EDO GALVANOAK, BIOLOGIKOKI BATERAGARRIAK



ORTODONTZIA:

DOAKO ORTODONTZIAREN PLANGINTZATZEA

- KOLORETAKO ORTODONTZIA
- ORTODONTZIA PREBENTIBOA
- ORTODONTZIA IKUSTEZINA



HORTZ ESTETIKA:

ZURIKETA ARGI HOTZAZ

- 4 TONU ZURIEN BEHERATZEA SAIO BATEAN



* ORTOPANTOMOGRAFIA HASIERAKO DIAGNOSTIKOAN

VITORIA-GASTEIZ

GORBEIA KALEA, 13

945218260

**Diagnostikoa, aurrekontua
eta erradiografia: DOAN*.**



mantangorri^{rekin}



6 DVD
euskaraz

Zinema etxean 3

azaroaren **15**etik aurrera
larunbat eta asteazkenetan
DVD bat

1. Heidi 2. Heidi hirian
2. Pippi galtzaluze
3. Axterix Britainian
4. Azti ikaslea
5. Txoritxoak
6. Zientzia fikzioa



+ 4,90 €

HARPIDEDUNENTZAT,
BILDUMA OSOA **24 €**
ESKARIA EGITEKO:
943 30 43 45

Babesleak:



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

